

Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan: bizikidetza (2021)



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez



**Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua**

AURKIBIDEA

1/ SARRERA.....	3
2/ PROIEKTUAREN HELBURUAK, METODOLOGIA ETA KRONOGRAMA	5
3/ 2021. URTEAN BURUTUTAKO EKINTZAK	7
3.1. AHOLKU BATZORDEA	7
3.1.1. Kideak eta soslaia.....	7
3.1.2. Aholku Batzordearen ekarpenen deskribapena	8
3.2. GURE DESADOSTASUNAK: EZBERDINEN ARTEKO KONFIANTZA LANTZEN NAFARROAN JARDUNALDIA (IRUÑA, 2021/06/16)	40
3.2.1. Nazioarteko mahaia	41
3.2.2. Nafarroako mahaia	44
3.3. BANAKAKO ELKARRIZKETAK.....	47
3.3.1. Elkarrizketatuen soslaia.....	47
3.3.2. Elkarrizketetan jarraitutako gidoia	48
4/ PROIEKTUAREN BERAREN DIBULGAZIOA	51
5/ PROIEKTUAREN ONDORIO NAGUSIAK ETA IRADOKIZUNAK.....	54
5.1. KONFIANTZA.....	54
5.2. EUSKARA.....	56
6/ AZKEN GOGOETA (2022. URTERA BEGIRA)	60
Zer ikasi dugu 2021eko proiektuan?.....	60
Zer geratu zaigu zalantza modura?.....	61
Zer landu nahi dugu 2022ko proiektuan?	61

1/ SARRERA

Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan: Bizikidetza izeneko egitasmoa Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Ikaskuntzaren arteko lankidetzaren markoan kokatzen da. Zehatzago, 2019an hasi, eta 2020. urtean zehar jarraitu zuen proiektuaren jarraipen modura ulertu behar da. Proiektuari hasiera eman genioenean, galdera sakon sorta bati erantun nahi genion: nola bilatu kontsentsu zabalak nafar gizarteak lurralde modura aurrera egiteko, eta zein izan zitekeen markorik egokiena identifikazio ideologiko, politiko eta kultural desberdinetako herritarrek elkarlanean aritu ahal izateko, giro abegikorrean eta konfiantza demokratikoan oinarritua.

2020. urtean bizikidetzaren gaian kokatu genuen gure hausnarketa nagusia, galdera bati erantzun nahian: zergatik hitz egin behar da bizikidetzaz gizarte demokratiko batean? Galdera hori pausatu genuen 2020an zehar garatutako proiektuaren berri emateko aurkeztu genuen txostenean: *Aniztasunaren kudeaketa Nafarroan: Bizikidetza* izenekoan. Eta 2021ean landu dugun proiektua haren jarraipen modura ulertu behar da, alegia, Nafarroako Gobernuaren Euskarabidearen eta Eusko Ikaskuntzaren artean egindako hitzarmenaren ondorio gisa. Jarraitzen dugu nafar gizartearen korapiloek harilkatutako mataza askatu nahian azterketa sozialaren bidez.

2020an atera genituen ondorioetatik bat izan zen demokraziaren funtsa berdintasunean eta, aldi berean, desberdina denari begirunean datzala, baina benetan sakondu eta indartu nahi bada demokrazia, hots harago joan nahi izanez gero, arrisku argi bat dagoela: homogeneizaziora jotzea. Horregatik nolabaiteko mesfidantza adierazten da nafar identitatearen balizko eraikuntza edo sendoketa batez hitz egiten denean.

Hori horrela, non dago gakoa bizikidetza eta jardun demokratikoa parekide modura erabili ahal izateko? Ez dago galdera horri erraz erantzuterik, esaten genuen, askotarikoak direlako aurkitu genituen erantzunak.

Gure abiapuntua bertsua izan da 2021. urtean: gaur egun Nafarroan bizikidetza arazoa dago, joko demokratiko zilegia eragozten duena. Herritar askok adierazten

dute ez dutela gogoko maila politikoan batez ere dagoen krispazioa edo asaldura. Hortaz, zeregin bat ezarri diogu proiektuari: bizikidetza eraikitzeke beharrezkoa den konfiantza giroaren baldintzetan arakatzea. Beste pauso bat eman dugu, beraz: giro polarizatuaren oinarria bizikidetzarako gogorik eza bada, zer baldintza behar du bizikidetzak aurrera egin dezan? Zer paper dagokio eragile sozial eta politiko bakoitzari? Bakoitzarentzako iradokizun zehatzak aurkitzen saiatu gara.

Nola eraiki daiteke nafarren ideologia guztiak asetuko dituen gutxieneko marko bat euskara eta gaztelania, batetik, baina batez ere nazio identitate desberdinak, bestetik, giro erosoan, mehatxurik gabe eta eztabaidara irekita garatu ahal izateko? Elkarren ondoan bizi beharrean, elkarrekin bizi gaitezen, nork bere printzipioei eta identitateari uko egin gabe. Bestela esanda, nola lor daitezke nafarren arteko gutxieneko konfiantza eta elkartasuna? Ez da erronka makala horren inguruko erantzunak aurkitzea. Saiatu egin gara, ordea.

Gogoratu behar dugu, bestalde, 2020ko proiektuak bezalaxe, Eusko Ikaskuntzaren proiektu honek ere bat egiten duela Nafarroako Gobernuaren *Bizikidetza, Bakea eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak bultzatutako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoarekin*.

2/ PROIEKTUAREN HELBURUAK, METODOLOGIA ETA KRONOGRAMA

Bizikidetzaren oztopoak nolabait identifikatuta geratu ziren aurreko proiektuan (euskararen inguruko kudeaketa eta polarizatutako nazio identitate desberdintasuna). Eta horren konponbiderako gakoetan sakondu nahi genuen oraingoan, kontuan hartuta hizkuntza politikaren diseinua ez zela izan behar gure helburu nagusietako bat.

Hura zela eta, proiektu honetan konfiantza kontzeptua erdigunera ekarri dugu. Zertan datza gizarte konfiantza? Ikuspuntu askotatik azter daitekeela kontuan izanda, nola lortu daitezke kontsentsu zabalak? Nolako iradokizunak egin dakizkioke eragile desberdinei:

- Espainiako markoa onartzen duten alderdi politikoei
- Euskal Herriko markoa onartzen duten alderdi politikoei
- Euskararen aldeko mugimenduari
- Nafar Administrazioari
- Hedabideei

Horretarako, nafar lurralde osoko kideez osatutako Aholku Batzorde batez baliatu gara, helburu argi batekin, berriro esanda: iradokizunak edo aholkuak adieraztea eragile desberdinei konfiantza giroa sendotze aldera. Aldez aurretik prestatutako galdera sortaz gogoeta egiteko eskatuz, bileren edukia euren erantzunetan eta euren arteko eztabaidan zentratu dira, iritzi homogeneotasun osorik ez baita egon, itxarotekoa zenez. Ordu biko sei bilera bakoitzaren deskribapenean azaltzen dira zeintzuk izan diren egindako galdera horiek.

Beste alde batetik, bizikidetzaren baldintza den *konfiantza* izanik era sakonean aztertze gaia, horretaz nolako gogoeta teorikoa egiten den aztertu nahi izan dugu. Aldi berean, interesgarria iruditu zaigu kanpora ere begiratzea, beste herrialde batzuetan izan diren gatazken ondorioz bizikidetzak kalteturik gertatu denean, nolako irtenbideak proposatu diren ikusteko. Horrekin guztiarekin galdera handi honi erantzun nahi izan diogu: nola ahalbidetu desberdin

pentsatzen dutenen arteko konfiantzazko giroa? Hartarako, Iruñan ospatu genuen ekainaren 16an “Gure desadostasunak: desberdinen artean konfiantza lantzen” jardunaldia. Eta, bertan, mahai bi osatu ziren: nazioarteko mahaia, Nafarroako kanpoko gogoetak eta esperientziak ezagutzeko; eta Nafarroako Mahaia, bertako adituz osatua, bertatik bertara dagoen problematikari buruz aritzeko.

Azkenik, nazio identitateaz hitz egiten bada, ezinbestean atzean dagoen bultzada politikoa ere hartu beharko zen kontuan. Eragile politikoengana zuzen jotzea izan da gure erabaki metodologikoa. Hortaz, lurralde osoko hamahiru ordezkari edo gogaide politiko (gizon eta emakume) elkarriketatu ditugu, Nafarroako aukera ideologiko guztiak hartu nahian.

Ondorengo kronogramak islatzen du aurten burututako ekintzak:

	2020		2021										
	AZAR	ABEN	URT	OTS	MART	APIR	MAIA	EKAI	Uzt	ABUZ	IRAIL	URR	AZAR
TALDE ERAGILEA													
AHOLKU BATZORDEA													
JARDUNALDIA													
ELKARRIZKETA													
TXOSTENA													

3/ 2021. URTEAN BURUTUTAKO EKINTZAK

3.1. AHOLKU BATZORDEA

3.1.1. Kideak eta soslaiak

Metodologian azalduta geratu den moduan, talde honetako kideak pertsona esanguratsuak eta ezagunak dira, nafar lurralde osoan ekarpen interesgarriak egin dituztelako, eta oraintxe bertan egiten ari direlako, euskararekin eta nazio identitateen arteko bizikidetzarekin harremanetan dauden gaitan.

Hauexek izan dira kideak:

- ✓ Anika Luján (Argia Ikastolako zuzendari ohia, Tuteran)
- ✓ Laura Pérez (Podemos Navarra-ko idazkari orokor ohia, Iruñerria)
- ✓ Raul López (Steilas sindikatuko ordezkaria, Iruñerria)
- ✓ Mikel Ziordia (Gizarte Gaitan Teknikaria, Tuteran)
- ✓ Aritz Romeo (Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbideko irakaslea, Iruña)
- ✓ Oskar Zapata (Nafarroako Topaguneko arduraduna)
- ✓ Amaia Nausia (Eusko Ikaskuntzako Proiektu arduraduna)
- ✓ Txoli Mateos (Eusko Ikaskuntzako Talde Eragileko kidea)
- ✓ Julen Zabalo (Eusko Ikaskuntzako Proiektuaren zuzendaria)



3.1.2 Aholku Batzordearen ekarpenen deskribapena

Aholku Batzordeari egokitu zaizkion helburu nagusiak hiru izan dira.

- Nafar herritarren arteko bizikidetzaren oztopo errealak identifikatzea *euskara* eta *nazio identitateen* inguruan. Eztabaida hauetan hizkuntza politikek duten garrantziaz jabeturik gauden aurren, horien diseinua ez da izan -edo saiatu gara ez zedin izan- eztabaidagai nagusia.
- 2021eko proiektuaren gako hitz nagusia *bizikidetza* izan bazen, oraingo honetan *konfiantzari* eman diogu protagonismoa, elkarbizitza gauzatu dadin ezinbestekoa iruditu baitzaigu konfiantza giroa nagusitzea gizarte harremanetan. Beraz, Aholku Batzordeari eskatu zaio konfiantza giro hori lantzeko baldintzei eta neurriei buruz gogoeta egitea.
- Eta, azkenik, Aholkularioi eskatu zaie hausnarketa orokorra egitea nafar gizartean kontsentsuak lantzeko ezinbesteko liratekeen agertokien inguruan. Non eta nola landu beharko lirateke horiek?

1. BILERA: 2021/03/25 (Telematikoa)

Dagozkion aurkezpenak eginda, Aholku Batzordeko kideei ahoz eman zaie aurreko urteko proiektuaren berri, aurretik txostena irakurtzeko aukera izan

dute eta. Txostenaren ondorio nagusiak eta azken gogoeta batez ere nabarmendu dira aurkezpen horretan. Hona, laburturik, egindako aurkezpena:

- a) Bizikidetza esangura askotariko kontzeptua da, jardun demokratiko hutsetik harago doana eta nolabaiteko identitate loturak eskatzen dituena.
- b) Gai nagusietakoak euskara eta nazio identitatea izan dira. Abiapuntua da euskara nafar guztien ondare kulturala dela, baina diferentzia nabarmenak agertu dira euskararen inguruko kudeaketan eta horrek ekarritako arazoetan. Alde batekoek aipatzen dute lurralde bereizketa, murgiltze ereduari ipintzen zaizkion trabak, eta euskaldunen eskubideen murrizketa administrazioan. Eta, bestekoek, euskara zabaltzeak sorrarazten duen mesfidantza, balizko diskriminazioa eta euskal nazionalismoaren inposaketa. Badaude ere euskaltzale zuhurrak, onartzen dutenak administrazioak tentu handiz ekin behar diola euskara babesteari, gatazka kutsu guztietatik aldendu nahian eta bizikidetza goretsiz.
- c) Nafar izateaz harro daude herritarrak, baina onartzen da beharrezkoak direla mota askotako loturak eta herritarren parte hartzea indartzea, deszentralizazioaren bidez eta elkar ezagutza bultzatuz, besteak beste.
- d) Txostenaren azken gogoetaren ardatzak ere laburtu zaizkie.
 - Bizikidetza pasio handirik pizten ez duen kontzeptua da, jende guztia hura lortzearekin ados egon arren.
 - Euskararen kontra ez da inor ageri, baina gatazka iturri gisa atzematen da. Arrazoia izan liteke azpian nazio identitateen arteko talka ezkutatzen dela.
 - Lotu beharrezkoak dira euskara bultzatzea, borondatezkoa izatea, despolitizatua egotea eta nafar guztien ondareztat aurkeztea.
 - Belaunaldi gazteek gatazkaren balizko baretze bat iragartzen dute.

Behin txostena aurkeztuta, taldekideei hari buruzko iritzia eskatu zaie, eta zehatz-mehatz erantzun dezatela ea zerbaiten falta nabaritu duten, eta ea zerk harritu dituen gehien. Oro har, oso interesgarria dela eta nafar gizartearen gatazka ondo islatzen duela adierazi da. Iritzi kontrajarri bi bakarrik ageri dira: kide baten ustez, euskararen azpian nazio gatazka argia dago eta arazo horri eutsi behar zaio. Beste baten ustez, oster, gakoa euskara ez dakien jende batengan dago, lan arloan eta pribilegioak galtzeko beldur direlako.

Kide batek azaldu du jarrera aldaketa bat egon dela denboran zehar: Tuterako udalean UPNrekin euskara baloratzen zen lanpostua lortzeko orduan; PPK bultzatuta aldatu da hori. Ikusiko dugunez, batez ere euskararen gaian, noizean behin agertzen den kontua da: egoera okerrera joan da; UPN PP baino euskaltzaleagoa da (edo zen...): “nire amaren familia Buñuelekoa zen, ez ziren nazionalistak, baina euskararekin zuen harreman txikia prestigiozkoa zen, eta ez diet inoiz hitz txarrik entzun euskararen inguruan. Lortu dutena izugarria izan da, buelta eman diote, euskararen kontra egin duten lana handia da”

Horren ostean, galdetu zaie zein neurritan dauden txostenaren azken gogoetaren ardatz nagusiekin ados.

Taldekide batek baino gehiagok adierazi du ez duela bere burua islatuta ikusi txostenean euskarari buruz agertzen diren jarreretan, nahiz eta jarrera horiek egon badauden, ez dute uste txarto planteatuta daudenik. Hala ere, zehaztu nahi dute gatazka baretu nahi dutela baina argi dutela, beste alde batetik, euskara egoera zailean dagoela eta borondate hutsa ez dela nahikoa. Neurri eraginkorrak behar dira; jarreretan eragitea, azken Inkesta Soziolinguistikoak oso datu ezkorrak islatu dituelako horren inguruan, adibidez: nafar herritarren %40 ez dago ados euskararen aldeko neurriak indartzearekin. Euskara egoera zaurgarrian dago Nafarroan, halaxe adierazi du UNESCOk. Pentsatu behar da apurka-apurka egin beharko dela lan haren alde; progresibitatea edo gehikortasuna da gakoa. *Inposaketa* asko erabiltzen da euskararen kontra hitz egiteko, baina zerbait inposatu ahal izateko, boterean egon behar da.

Belaunaldi berrien balizko agertokia dela eta, zalantzak agertzen dira. Irekiagoak dira edo axolagabeak? Edozein kasutan, “gazteak beste leku batean daudela” uste du kide batek, Chill Mafia musika taldearen adibidea ipinita.

Eta euskararen balizko despolitizazioaz ere desadostasunak agertzen dira. Zenbaiten ustez, politizatu egin behar da euskara, baina alderdikierarik gabe, era demokratiko batean konponduz. Badirudi taldekideen arabera despolitizazioaren aldeko jarrera euskararen kontra daudenei egozten zaiela. Hortaz, oro har, balizko despolitizazioaren beharra zalantzan ipintzen dute.

“Zer da despolitizazioa? Zergatik Nuñez Feijóok bere diskurtsoetan galegoa erabili behar du bozkak irabazteko eta aldi berean bere alderdi berekoek Nafarroan euskeraz ez? Hori kalkulu politiko batengatik da, elektorala: Nafarroan euskara sustatzen bada, euskalduntzen bada, gehiengoa izanen dute alderdi abertzaleek... baina agian horri buelta eman behar zaio, alderdi abertzaleek euskara erabiliz.”

Zenbaiten ustez, euskararen inguruko gatazkak beste gatazka batzuk ezkututzen ditu, gatazka zaharrak. Baina okerra da euskara euskal nazionalismoari lotzea, zeren euskarak ez baitu ematen pentsatzeko modu bakar bat: *“euskaldun askok egin dute Frantziaren edo Espainiaren alde historian zehar.”*

Taldekideek planteatzen dute *eskubideen mailara eraman beharra euskararen inguruko auzia*. Horrek ekarriko luke euskaltasunaren abiapuntu nagusietako bat aldatzea: *euskara da euskaldun egiten gaituena* albo batera utzi eta nafartasunaren osagai bihurtu. Horrela, nafar guztiek izango lukete euskara jakiteko eskubidea. Hala ere, aitortzen da zaila dela gatazkarik ez egotea euskararen inguruan, *“ondo dakitelako alemana ikasten dutenek ez dutela alemanizatuko Nafarroa”*, hau da, euskararen beldur dira sektore batzuk euskararekin batera *etor litekeenagatik*.

Edozein modutan, taldekide guztien kexa da jendeak ez duela eskubideen diskurtso horrekin bat egiten. Eta errua, behin baino gehiagotan aipatzen da, Euskararen Legeak eta dagokion zonifikazioak du. Zer egin horren aurrean?

Zenbaiten ustez, inportantea da erritmo egokiarekin asmatzea, tentu handiz ibili beharra aipatzen da. Beste batzuk, aldiz, uste dute ofizialtasunak berak ekarriko duela egoeraren aldaketa, nahiz eta nafar lurralde osoan era berdinean ezin aritu. Horixe da gakoa. Baina irmo aritu behar da: *“diskurtso matxistak*

salatzen diren bezala diskurtso euskarafobikoak gaitzetsi eta salatu behar dira. Eta Administrazioa da lan hori egin behar duena."

2. BILERA: 2021/04/22 (Telematikoa)



OZTOPOAK GAINDITZEKO AUKERAK NAZIO IDENTITATEEI DAGOKIENEZ

OZTOPOAK:

1. Diskurtso polarizatuak ez dira lagungarriak bizikidetzarako
2. Ez da onartzen nafar gizartearen nazio identitate aniztasuna

Bilera honen helburu nagusia izan da bizikidetzarako oztopoak eta horiek gainditzeko tresnak identifikatzea. Etorri aurretik, taldekideei bidali zitzaizen zati bi zituen dokumentu bat, bileran bertan eztabaidatzeko asmoz. Lehenengo zatian, bizikidetzaren kontzeptu korapilatsua zertan datzan azaltzen zen, 2019ko Aritu Taldean ateratako gako batzuen bidez.

Asko laburtuta, adierazi zen lehenik eta behin nola uler daitekeen bizikidetzaren zer ez den eta zer izan litekeen bizikidetzaren balioestea gizarte demokratiko batean. Bizikidetzaren balioestea ez du esan nahi gatazkarik ez dagoenik, pluraltasunari uko egiten zaionik ezta identitate bakarra egon behar denik. Bizikidetzaren balioestea, oster, esan nahi du gatazkak demokratikoki kudeatzen direla. Nafarroara etorrita, horrek esan nahi du kultura guztiek dutela adierazpenerako eskubidea; euskara nafar ondare kulturalaren zati dela eta ez dagoela nafar izateko modu bakarra. Eta, azkenik, bizikidetzaren nagusitzen den gizarte batean kontsentsu zabalak gauzatzen dira maila politikoan, herritarren artean eztabaida foroak sortzen dira, Administrazioak elkarri entzuteko jarrerak bultzatzen ditu eta, aldi berean, herritarrek gutxieneko leialtasun demokratikoa adierazten diote Administrazioari.

Sarrera hori azalduta, eztabaidara pasatu ziren aurretik bidalitako testuaren edukiak. Bai proiektuan zehar eta baita aurreko batzarrean bertan taldekideek eurek egindako baieztapen batzuk hartu ziren eztabaidagai, beti ere irtenbideak hausnartzeko helburuarekin. Honako hauek izan ziren, sailkaturik:

a) Oztopoak nazio identitateei dagokienez.

- Diskurtso polarizatuak ez badira lagungarriak, nork aldatu beharko luke diskurtsoa?
- Nazio identitatetik nafartasunera jauzi egin behar da. Posible da nafar identitate adostua? Zertan oinarritua?
- Ez da onartzen nafar gizartearen nazio identitate aniztasuna. Posible da kontsentsurik arlo honetan?

b) Oztopoak euskarari dagokionez:

- Euskararen politizazioa. Alderdiek erabiltzen dute euren borroka politikoetan. Despolitizatu daiteke hizkuntza bat? Nori dagokio horren babesaren ardura? Nork zehaztu behar du hizkuntza politika jakin bat?
- Posible da "kolorerik gabeko administrazio bat" euskararen gaian? Kontrako diskurtsoa berria da, "artifiziala" da. Eta irrazionala. Euskararen aldekoa guztiz arrazionala da? Erdaldunen balizko diskriminazioa administrazioaren lanpostuetan: nolako diskurtso erakargarria landu liteke arlo horretan?
- Zonifikazioak berak areagotu egiten du zonifikazioa. Erabat ezabatu daiteke zonifikazioa? Berdin tratatu behar dira Castejón eta Elizondo?
- Euskal hiztunen eskubideak urratzen omen dira. Eskubideak abstraktoak dira?
- "Euskarak egiten gaitu euskaldun" ez du balio. Euskal
nazionalismoak aldatu egin behar du? Nork bestela?

Nazio identitateen arteko gatazka eta balizko bizikidetzaren arloan, gizartea anitza dela eta bizikidetzaren horretan oinarritu behar dela, bestearen onarpenean, eta hor nazio identitateak sartzen direla, argi eta garbi planteatu zuen kideetako batek. Nafarroan jendea nafar sentitzen da, nahiz eta espainol eta euskal herritar ere sentitu, baina nafartasun hori izan liteke nafarron arteko zubi inportante bat. Ez da posible momentu honetan nafartasun bakar bat egotea, baina kontsentsu zabalak eraiki daitezke horren inguruan. Ildo horretatik, kide bik ongizatea aipatzen dute balizko oinarri modura nafartasuna eraikitzeko.

Baina kontu hau ez dago argi kide guztientzat. Batek dioenez, identitate sentimendu kontua bada, ezin du irudikatu nolako adostasuna eraiki daitekeen denek berdin sentitu dezaten nafar identitate jakin bat.

"Identitate komun batez hitz egiten dugunean, abiapuntu garrantzitsua litzateke elkar ezagutzea, eta uste dut ez dugula elkar ezagutzen, ez dugu beste zonaldeetako egoerak ezagutzen. Barne turismoa bultzatu beharko litzateke? Ez duzuna ezagutzen ez duzu maite." Antzeko ildoari eusten dio beste kide batek: *"elkar ezagutzea da elkarren aitortzaren oinarria"*.

Aldatzekotan, diskurtsoa edo edukia baino, esaten du, formek, gauzak adierazteko ere dutela aldatu beharra, krispazioa eragozteko. *"Zarata handiegia dago"* eta *"hizkera belikoa"* erabiltzen dela gehitzen du beste batek, etsita modura.

Edozein modutan, kide biren adierazpenak beste bide batetik doaz. Haien esanetan, nazio identitateen azpian interes ideologikoak ere egoten dira eta nabaria da Nafarroan identitate batek besteak baino onarpen instituzional handiagoa duela. Identitate bakarra edo monolitikoa aldarrikatzen dutenek diskurtsoa aldatu beharko lukete. Zalantzan ipintzen du haietako batek aniztasuna modu demokratikoan kudeatzeko posibilitatea, gehiengoak inoiz ez duelako gutxiengoa aintzat hartzen. Are gehiago, baiesten du, *"aniztasuna onartzen ez dutenei ezin zaie errespetatu"*. Hala ere, posible ikusten du nafar identitate bat eraikitzea, nafar (*gure*, erabiltzen du) kulturen eta historian oinarritua, beti ere aniztasunetik abiatuta.

Euskararen inguruko gatazka dela eta, kide baten esanetan, bai euskararen kontrako eta aldeko jarreretan daude irrazionaltasunak baita arrazionalak diren diskurtsoak ere. *"Ildo diskurtsibo berriak asmatu beharra"* aldarrikatzen du. Joko partidistatik atera behar da euskara, baina inola ere ez agenda politikotik, zehazten du batek. Eta bat egiten dute ideia horrekin beste kide batzuek. Zehatzago esanda: *"epe ertain eta luzera estrategia eraiki beharra dago"*. Tokian tokiko estrategiak ere martxan jarri behar dira eta hori guztia Gobernuaren ardura zuzena da; Euskarabidearena, zehatzago esanda. Hala, gehitzen du, euskararen aldeko diskurtso asko errealitatetik kanpo daude. Adibidez, D eredua zabaltzeko asmoa. *"Ni A eredua ezartzearen aldekoa naiz, curriculumeam txertatu beste irakasgai bat bezalaxe"* Eta errealitatetik kanpo baino gehiago, akats handia egin dela uste du kide batek euskarari protagonismoa emanez herritartasunaz hitz egiteko orduan. Beste maila bateko gogoeta dirudi eta, inplizituki, euskal nazionalismoaren jardunari kritika egiten dio: *"Diskurtsoaren inguruan, gaizki egin dugu euskara euskal herritartasunarekin lotuz."*

Hala ere, beste batzuek gehiago nabarmentzen dute euskararen kontrako diskurtsoaren irrazionaltasuna, nahiz eta, nazio identitateen kasuan bezalaxe, beti ezkutatzen omen dute nolabaiteko nahia botereari eusteko... beraz, ez omen dira horren irrazionalak. Euskararen kontrako diskurtsoak ez dira berriak, baieztatzen dute, bost mende dira egiten direla... Eta jarraitzen dute gaur egun, euskara bertako hizkuntza izateari dagokion politika instituzional eskasa eginez. Horrexegatik, okerra da euskararen despolitizazioa eskatzea, ezinezkoa baita. Are gehiago, *"euskarafobia homofobiaren parean jarri beharko genuke (...) eta ofentsibara pasatu beharko genuke"* adierazten du. Euskararen ofizialtasuna da, haren ustez, aztertu beharreko kontu nagusia eta benetan erabakiorra.

Euskal hiztunen eskubideen urraketaren harira, galdetzen zaie taldekideei ea berdin aplikatu behar diren horiek Nafarroako edozein tokitan. **Alegia, abstraktoak dira eskubideak?**

Taldekide batek aitortzen du galdera zaila egin zaiola eta gogoeta eskatu diola. Hizkuntza eskubideak, baieztatzen du, arlo bitan gauzatzen dira: *"Hezkuntzan*

eta Administrazioarekin harremanetan. Horretan, Nafarroako herritar guztiak berdintasunean tratatuak izan behar gara. "Are gehiago, "eskubideak ezin dira gehiengo/gutxiengo parametroetan ulertu." Administrazioak ez du hizkuntza bitartekorik euskaldunei atenditzeko, eta idazki bat euskaraz bidaliz gero, jende guztiak daki itzuli egiten dela, instituzio publikoetako langile gehienek ez dutelako hizkuntza soslairik eta ez direlako euskaldunak izaten. Aurreko gobernuarekin handitu zen hizkuntza soslaiaren zuten lanpostu kopurua, baina gero, praktikan, epaileek ere ipintzen dituzte oztupoak.

Baina desberdintasun garrantzitsu bat egiten du kide honek. Dioenez, gauza bat da eskubideak errespetatzea eta beste bat euskararen hedapenari eta sustapenari ekitea. Hor ikusten du berak tokian tokiko herritarren nahiei entzun beharra

"Eta horiek asebetetzeko neurriak ezartzea lehendabiziko urratsak izan behar dira, era progresibo batean urrats gero eta sendoagoak izan daitezen euskararen egoera soziolinguistikoa hobetzeko."

Demokratikoa deritzo gutxiengoaren nahiak asebetetzeari, baina onartu beharra aitortzen du:

"Herriren batean inolako interesik ez edukitzea herritarren kasik %100 eta hori errespetatzea"

Abstrakto/Konkretu dikotomiaz galdetzearen helburu nagusia zen ea berdin aplikatu behar diren hizkuntza eskubideak (edo euskararen aldeko neurriak) edozein tokitan, ezagun delako Nafarroako Euskararen Legeak hiru hizkuntza-zona bereizten dituela, euskararentzat dakartzan ondorio guztiekin. Hortaz, hasieran aipatu dugun kideak argi utzi du gauza desberdinak direla eskubideak bermatzea eta euskara zabaltzeko neurriak ezartzea. Gainerakoek argi eta garbi egin dute bat lehenengo baieztapenarekin: eskubideak ez dira abstraktoak, konkretuak dira eta, normalean, arau multzo batean jasota egoten dira. Konkretuak direnez gero, Administrazioak betebeharra du herritar guztien eskubideak errespetatzeko. Berdin errespetatu behar dira Elizondon edo Castejonean? Berdintasunaren izenean, baieztatzeko daude kide denak, nahiz eta, ikusiko dugunez, ñabardura asko egiten diren.

“Eskubideak finkatzeko kriterioa ezin daiteke izan lurralde kriterio huts bat (...) legeek eta araudiek finkatzen dituzten eskubideetan eta eskubideen aplikazioan ezin daiteke lurralde mugarik ezarri.”

Zonifikazioaren kontra ari da kide hau, jakina, eta, modu batera edo bestera, denek egiten dute bat ideia horrekin: Zonifikazioarekin amaitzea da lehentasuna. Nafar guztien arteko berdintasuna bermatu behar bada, euskaratik urrutiago dauden eremuek baliabide gehiago jaso beharko lukete.

Kide batek adibide bat ipintzen du honen harira: Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Sailak ez dihardu berdin Lodosan edo Pirineoetan, ekosistema desberdinak direlako. Berdin egin beharko luke euskararekin, hizkuntzak ere ekosistemak direlako.

Ñabardurak ageri dira, hala ere: abiadura desberdinak, maximoak eta minimoak lurraldearen arabera... Kide batek bakarrik agertzen du zalantza zonifikazioa kenduta konponduko ote zen euskararen aurreko jarrera Nafarroan. Iradokitzen du eskubideen kontua hil ala biziko arazo modura ulertzen ari dela eta agian ez dela hori arazo nagusia, baizik eta euskararen ezagutza minimo bat orokortzea. Euskarak sor lezakeen mesfidantzari beldur dio:

“Dugun egoera askoren jatorria zonifikazioan dago, baina oso zaila egiten zait irudikatzea nola eman buelta lege horrek sortu duen egoerari etsai gehiago ez ateratzeko.”

3. BILERA: 2021/04/29 (Telematikoa)



Hirugarren bilera honetarako eskatu zitzaizen Aholkulari Taldeko kideei honako galderez gogoeta egitea:

1. Hizkuntzak politizatu behar dira? Nork politizatzen du euskara Nafarroan?

Ukaezintzat dute kideek hizkuntzak politika jakin baten emaitza direla gaur egun, eta zentzu horretan politizatuta daudela. Herri bati hizkuntza bat eta bakarra dagokiolako ideia guztiz finkatuta dago gure artean, Europako eta munduko beste herrialde batzuetan horrela ikusten ez den arren. Alde batetik, batasun politikoaren eraikuntzak ez duelako ekarri, ezinbestean, batasun linguistikorik; eta, bestetik, hizkuntzen arteko harremanak parekidetasunean oinarrituta egon direlako. Kide batek idatzita bidali du bere erantzuna, zinez mamitsua:

“Los ingleses, españoles, franceses, alemanes.... no presuponen que hablar estas lenguas tenga una correlación ideológica per se... ¿cómo hemos llegado a que en Navarra, optar por euskera o por castellano, sea ya indicativo de un determinado perfil ideológico? ¿Hace algún bien al euskera mantener esta falsa conceptualización que no se da en otros lugares? ¿A quién beneficia seguir chapoteando en este barro?”

Gaztelaniaren aldekoek ekiten diote horri eta, ondorio modura, euskararen alde daudenek berdintsu erantzuten dute. Hortaz, espektro politiko osoak politizatzen du euskara, hizkuntzari kutsu ideologikoa ematen zaion neurrian.

Akats handia da, haren ustez, baina aitortzen du ez dakiela nola irten daitekeen korapilo horretatik. Hizkuntza aniztasuna onartzea da bururatzen zaion irtenbide bakarra eta, horretarako, ereduak bilatu behar dira Nafarroatik kanpo, egon badaudelako. Jarrera pragmatiko batetik, hain da txarra euskararen egoera, *elebitasuna eta begirunea* planteatzea, berez, lorpena litzatekeela, bere ustez. Hartarako, askoz gehiago landu beharko litzateke euskararen *nafartasuna*.

Hizkuntzak beti daude politizatuta, hizkuntza politikak egiten direlako, are gehiago gertatzen da euskararen kasuan hizkuntza gutxitua delako eta ezinbestean sartuko da ikuspuntu politiko bat hizkuntza horren garapenean, biziraupenean... orduan Administrazioaz hitz egin behar da. *Ezin da izan kolorerik gabekoa*. Hizkuntza baten alde edo kontra jokatzeko du. Ezer ez egitea politikoa ere bada, adierazten dute kide batzuek.

“Politika egiten da hizkuntza bat sustatzeko eta bi hizkuntza daudenean haien arteko harremanak arautzeko ere egiten da politika. Beharrezkoa da ere hizkuntza politika egitea (...) Euskarak hizkuntza politika jakin bat behar du.”

Euskara zalaparta politikotik kanpora eraman behar dela dio batek, baina ez hizkuntza politikaren ikuspuntutik.

Hala ere, kide batek zehazten duenez, alderdi politikoek uste dutenean euskararen alde edo kontra egiteak bozkak emango dizkiela, gatazka areagotu egiten da. *“Heldutasun falta”* somatzen du, Nafarroako arlo politikoan euskarak behar duen hauspoa lortze aldera. *“Ongi legoke ados jartzea euskararen aldeotasun horretan”*. Izan ere, tentuz ibiltzeko beharra aipatzen da, nahi gabeko erantzunik ez aurkitzeko. *“Euskararen aldeko neurriak martxan jartzen baditugu kontrako jarrerak ere piztuko ditugu.”*

Esan genezake, hala ere, kideren batek askoz ikuspegi baikorragoa adierazten duela euskararen balizko politizazioa dela eta. Izan ere, adierazten du, jardun politikoari esker egin dute aurrera ikastolek, adibidez.

Baina berdin gertatu da beste gizarte mugimendu batzuen kasuan; nolabait, saihetsezintzat eta *beharrezkotzat* jotzen da euskara ekimen politikoen baitan kokatzea. Kexu agertzen da, bizikidetza hizpide delarik, euskararen politizazioaz hitz egiteak bizikidetzaren aurka zaudela ematen duelako, baina ekimen sozial guztiak politizatzen dira; euskararen aldekoa ez da izango salbuespena.

2.- Euskal Nazionalismoaren zeregina / Euskalgintzaren zeregina

Nafar gizartearen gatazkaren barruan, kide guztiek ez dute horren baieztapen biribilik egiten, baina bik argi eta garbi esaten dute: *"bi nazionalismoen aldetik erabiltzen da euskara"*. Eta beste batek errotiko akats bat atzematen du nazionalismoen diskurtsoan:

"Euskal abertzaletasunaren eta espainiar nazionalismoaren nazio kontzeptua kulturala da, eta hizkuntza da horren oinarri: herri bat, hizkuntza bat; eta agian hortik dator polarizazioa. Nazio kulturek nazio demokratikora garapena eginen balute, agian gauzak beste modu batera ikusiko lirateke."

Egia da, aitortzen du, bi polo horiek baldintzatu dutela euskarari buruzko eztabaida, baina ñabardura asko egin beharko lirateke. Aipatzen du, adibide modura, Iñaki Iriartek (UPN) Nafarroako Parlamentuan Espainiaren batasunaren aldeko hitzaldia euskaraz egin izana. Edozein kasutan,

"Nafar espainolistaren arerio zuzena da euskal abertzaletasuna. Biak sortzen dira bestearen ukazioaz. Eta euskara hor erdian sartzen da, nazioa kulturalaren ikuspegiak hizkuntza jartzen du erdian. Nik uste dut horrek ez diola mesederik egiten euskarari. Nola atera euskara dinamika horretatik? Hor dago zailtasuna."

Azken batez, dio kide batek, *"Euskal Herri osoan dugu kontraesan hori, euskaldunak dira euskeraz egiten dutenak, baina horrek ez du esan nahi euskaraz egiten ez dutenak euskal herritarrak ez direnik."*

Eta edozein kasutan, baikor agertzen da: poliki-poliki gauzak aldatzen ari dira. Gazte asko D eredutik pasatzen ari dira... *"gutxinaka UPN Nafarroa ari da galtzen."* Esplizituki esan gabe, kasu honetan, euskararen zabalpena eta nafar eskuinaren galera harreman zuzenean ipintzen dira.

3.- Zertan datza bizikidetza euskararen eta gaztelaniaren artean? Non dago bizikidetzaren gakoa?

Lehenik eta behin, lurraldearen hizkuntza aniztasuna onartu beharko litzatekeela adierazten du kide batek. Eta, gehitzen du, momentu honetan, ezinezkoa da. Hori ez da onartzen.

Beraz, bizikidetzaren pedagogia eraiki behar da, argi utzita gaztelania euskara jaten ari dela, baita nafar-aragoar erromantzea ere. Horrekin lortuko litzateke nolabait indarra kentzea euskararen defentsaren eta euskal nazionalismoaren arteko lotura estuari. Mezuak aldatu behar dira jendea euskarara erakartzeko: mezu baikorrak, freskoak, seduktoreak... Eta euskara lotu beti balio eskuragarri: bertakotasuna, naturaltasuna, bizikidetza, elkarrekikotasuna, tolerantzia, malgutasuna... Hiru agertoki dugu (hizkuntza lurralde bereizketaz ari da) eta hiru estrategia desberdin pentsatu behar dira. Eta euskararen alde ageri diren zenbait diskurtso desegokiak direla argi eta garbi adierazten du:

“Mensajes del tipo de “euskaldunizar Navarra o vasquizar la Ribera “... muy de moda en determinados ambientes... Me recuerdan a las rancias ideas de la reconquista, esta vez en versión vasca.”

Illdo beretik doaz beste kide batzuk: bizikidetzaren gakoa ezberdinen aitortza da, gu bezalakoak ez direnak berdinak direla aitortu eta nafar guztiek aukera berdintasuna izan behar dugula. Edozein kasutan, dena egin behar da *“pauso txikiak emanda, arinegi joatearren, batzuetan, erori egin baikara”*.

Are baldintza oinarritzakoagoa aipatzen du beste batek: interakzioa. Gakoa ez da tolerantzia edo onarpena. Gakoa bestea ezagutzea da, eta horretarako euskarak ikusgarritasuna irabazi behar du. Dokumentu ofizial guztiak elebidunak balira, adibidez, euskara ikusgarri izango litzateke. Beste neurri garrantzitsu bat: euskara ikasgai gisa Nafarroako ikasle guztientzat. Eta horretarako Foro Erabakiorrak behar dira gizartean.

Kide batek bestela zehazten du arazoa. Gakoa da adostasun sozial eta politikoa lortzea ondoko printzipioetan oinarritua: Nafarroak *bi berezko hizkuntza bizirik*

eta osasuntsu egoteak Nafarroa bera aberasten du, eta errespetuan oinarrituriko elkarbizitzarako egoerarik onena da.

Baina adostasun horren abiapuntua euskarak pairatzen duen egoera diglosikoa izan beharko litzateke. *“Abiapuntua gaur eguneko egoera diglosikoa izanik, epe ertainerako helmuga behar luke eskubide eta aukera berdintasuna egoera batera iristea, norberaren funtzio eta behar komunikatibo guztiak hizkuntza batean zein bestean bete ahal izateko.* Baina planteamendu honek epe ertain eta luzera begira egin behar dela dio: hogeit edo hogeita bost urtera, beharbada. Eta horren muinean *progresibitate* kontzeptua dago. Neurriak hartzeko orduan kontuan hartu behar da nolako distantzia daukaten herriak euskaratik eta euskal kulturatik. Apurka-apurka, denborak berak zehaztuko du herri bakoitzaren abiadura egokia zein den. Baina, oinarritzko kontu bi daude: *Iruñerriak* duen zentralitatea eta bigarrena urrats kualitatiboa dela *A eredu*a lurralde osoan ezartzea.

Hala eta guztiz ere, planteamendu horrek duen zailtasunaz kontziente da aipatutako kidea, eta zailtasun hori ehunekoetan islatzen du: Nafarroan %39,1 euskara sustatzearen kontra da, eta 26,7 ez axola agertzen da. Hortaz, biztanleriaren %33,3ri axola dio biziberritze prozesuak. Zenbaki horiei buelta ematea funtsezkoa izanen da. Euskaltzaleek, bestelako gizarte eragileekin batera, pertsuasio eta presio lan egokiak landu beharko dituzte.

Agertu da, agertu ere, askoz ezkorragoa den jarrera, posible ikusten ez duena adostasun sozialik egotea gehiengo politikorik eduki gabe:

“Kanpotik presioa behar da. Galdu genuen sekulako aukera gehiengo politikoa izan genuenean Euskararen Legea aldatzeko. Ukiezina dirudi (...). Batzuk diote euskararen legea ukiezina dela Foru Hobekuntzatik datorrelako eta hori ezin da ukitu. Dena dela herriaren presiorik gabe ez da ezer aldatuko (...). Bizikidetza hiztunen arteko aitortzan datza eta horretarako ofizialtasuna ezinbestekoa da. Eskubide berdinak denontzat.”

Nolabaiteko eztabaida sortzen da bileraren aurreran, ildo horretatik joanda. Zenbaiten ustez, “kaleko presioak” eragin dezake Legearen aldaketa eta Euskararen Legea da gainditu ezineko horma une honetan. Beste batzuek,

aldiz, zalantzan ipintzen dute “presio” hori leku guztietan egin litekeen, eta egin ezean, zer gertatuko da zona horietan? Nola bermatu daiteke hizkuntzen arteko bizikidetza marko desberdin horietan?

Ez da ikusten arazorik batzuen aldetik. Litekeena da euskararekin eta euskal kulturarekin harreman izateak nolabaiteko gatazka eragitea, baina gogoeta eta pedagogia publikoaren bidez gaindi liteke egoera.

4. BILERA: 2021/05/13 (Iruña)

Bilera honen helburu nagusia Nafar Administrazioaren jardunaren inguruan gogoeta egitea da. Zehatzago esanda: Zein izan behar da Administrazioaren papera bizikidetzaren alde kontsentsu zabalak lortzeko? Eta zeintzuk eutsi beharreko minimoak euskararen inguruan?

Taldekideei azaltzen zaie helburua ez dela hainbeste *nork duen arrazoia*, baizik eta *zer den egokiena* bizikidetza bultzatze aldera.

Aurreko batzarretan bezalaxe, kide batek planteatzen du iraganean egindako inguruko diskurtso batzuen egokitasuna kolokan jarri beharko litzatekeela, bai euskararen zein bizikidetzaren mesederako.

“Euskara da euskaldun egiten gaituena”, *horri esker espainolista batek erantzunen dio: “ba orduan nik ez dut euskararik ikasi nahi.”*

Baina zergatik agertzen da beti euskara erdigunean? Pasioak eragiten dituelako, erantzuten du. Eta orain, gehitzen du, Administrazioak erabaki behar duenean ea euskara kontuan hartuko den lanpostu batzuetarako, hau da, *ogibidea erdian dagoenean*, eztabaida sutsuago bihurtuko da. Eta badago ere euskal kulturaren zabalpenari beldurra. Beraz, hiru gako planteatzen du:

- euskarak euskal nazionalismoan betetzen duen papera
- euskararen protagonismoa lanaren merkatu publikoaren garapenean
- euskal kulturaren (eta nazionalismoaren) beldurraren eraginez, euskaraz mesfidati dira nafar asko.

Azken honetaz beste kide batek dio onartu behar dela nafar gizartea hiru bloketan banatua dagoela. Honezkero, euskararen aldeko mugimendua kontziente da ezinezkoa dela egotea "Nafarroa guztiz euskaldun" ezta "Nafarroa guztiz espainiar" bat ere, berrogei urte pasatu eta gero.

Administrazioaren betebeharrak direla eta, Hegoaldeko biztanle batek dio gutxieneko batzuk, behintzat, bete beharko liratekeela, bizikidetzaren izenean: udalek eta gobernuek ateratzen dituzten gauza guztiak ele biz egotea, adibidez, euskal hizkuntza zerbait "normal" gisa ikus dadin. Horrela azaltzen du egoera hau:

"Jende askorentzat gai honek ez du bere bizitzan eraginik ez interesik. "Hau ez da nirea" esaten dute. Abiapuntua da: ez dudanez nirea sentitzen, ez etorri nigana kontu horiekin. Ez daude guztiz kontra, baina erabat arrotza egiten zaie. Ondorioz, euskararekin bizipen hori horren arrotza ez izateko kontaktu minimo bat izan beharko lukete. Ez badut inoiz aukerarik izan euskara ikasteko, gero etorriko dira "kanpotik" nirea kentzera. Besteek izan dute aukera nire zergekin ikasteko eta nik ez dut izan."

Kide baten iritziz, ordea, Administrazioak bitartekaritza lanak egin behar ditu bi hizkuntzak errespetatu daitezen, berdintasuneko harremanetan. Baina harreman teoriko berdintzaile hori ez da kide guztien aldetik ikusten horren erraz. Batzuen iritziz, justizia sistema bera "espainiarzaletasunarekin" lerrokatuta dagoelako; eta beste batzuen ustez, euskararen inguruan zaila da administrazio mailan kontsentsu zabalik lortzea kalean ez dagoelako horren aldeko gehiengorik.

Beraz, *"pasioetatik jaitsi eta frigorifikora eraman beharko genituzke. Paisaia linguistikoa oso garrantzitsua da jendeak euskara ohiko zerbait bezala ikusi ahal izateko"* Eta, nolabaiteko etsipenez, gehitzen du: *"1936. urtean eta orain euskaldun hiztun kopuru bera daukagu."*

Eta gehitzen da, argudio hori indartu nahian:

"Inoiz ez da egon gehiengo sozial bat Nafarroan euskararen alde, baina lortu beharko genuke euskara Nafarroa osoko hizkuntza dela onartzea. Bizikidetzarako ona da. Baina urrun sentitzen dira Hegoaldean. Ana Beltranek

esan zuen euskara ez ikusteko eskubidea zuela [hots, gaztelaniaz eta euskaraz batera idatzitako seinalerik edo kartelik ez zuela ikusi nahi]. Balioak konpartitu behar ditugu. Gu gabe Nafarroa ez dago osorik.”

Hortaz, kokapen geografikoak erabateko garrantzia dauka euskararen zabalpenean Administrazioak eraman lezakeen protagonismoa dela eta:

“Diskurtso ofiziala da euskara Nafarroako hizkuntza dela. Beste bat litzateke esatea Nafarroa osoko hizkuntza dela. Erriberan jende askok ez dute zerbait propio bezala ikusten.”

Baina, beste batzuek, Administrazioaren papera hiztunen eskubideak bermatzea dela kontuan hartuta, uste dute beste gai batzuekin egin den bezala -genero diskriminazioaren aurkako ekinbideak, adibidez- egingarria dela nafar lurralde osoan hizkuntza politika zuzenak aplikatzea. Bestela, “onkerian” jaisten garela diote.

Euskararen Legeak, batetik, eta nafar lurraldearen desberdintasun soziolinguistikoak, bestetik, behin eta berriz irteten diren gaiak dira bilera hauetan guztietan. Bilera honen amaieran, kideei eskatu zaie zehatz-mehatz izendatzeko zeintzuk izan litezkeen zonifikazioak eragindako kalteak edo diskriminazioak.

Aipatzen den lehena *arbitrariedadea* edo zientifikotasunik eza da. Elkarrenganako kilometro gutxira dauden herriak zona euskaldunean edo mistoan daude, inolako irizipide argirik gabe. Oro har, esan daiteke adostasun handia dagoela zonifikazioaren kontra jotzeko, baina ez dira beti argudio berdinak erabiltzen. Batzuen ustez, zonifikazioa kendu baino lehenago, adibidez, legez onartu beharko litzateke euskararen ofizialtasuna lurralde osoan. Eta beste batzuk argudio soziolinguistikoak eta juridikoak, biak batera, jartzen dituzte mahai gainean:

“Marko bakarra behar da, ekosistema bakoitzak eskatuko ditu neurri ezberdinak. Hizkuntza berdintasun printzipioa erabili behar da. Hizkuntza ezagutzeko eskubidea eta beharra.”

Galdera bat egiten zaie kideei: 2016-2017tik, D eredua edonon eskatu ahal bada aukera moduan, zergatik ez da zabaltzen? Erantzuna da oztopo

“estraofizialak” egoten direla; oztopo faktikoak egoten direla: D ereduan seme-alaba matrikulatu nahi duten gurasoak gogogabetu edo beldurtu egiten dituzte eskolan bertan, zuzendaritzaren aldetik, adibidez.

Berez, gogorazten digu kide batek *“zonifikazioak berak areagotu egiten duela zonifikazioa”* eta kasu horiei aplikatu ahal zaiela; alegia, aukera izan eta matrikulatu ez seme-alabak euskarazko ereduetan. G eredua desagertu beharko litzateke nafar lurralde osoan. Badirudi ahobatasuna dagoela horretan. Administrazio gisa, bere ardura hartu beharko luke eta ulermen maila minimo bat bermatu nafar lurralde osoan.


Horretan oso lagungarri izan da “euskaltzaletasuna” gobernura iritsi izana, baina denbora laburregia izan da etekin zabalagorik eskuratzeko.

Zeintzuk izan litezke neurri egokiak Administrazioak oraintxe bertan hartu beharrekoak? Kide batek zehatz-mehatz adierazten ditu:

“1. Eskubide berdintasuna, 2. Progresiboa: zure ondarea denez, zure eskubidea da, ez baduzu erabili nahi, ez erabili eta 3. Tokian tokira egokitu”

Planteamendu hori euskalgintzak nola ikusiko lukeen galdetuta, kide batek adierazten du euskararen aldeko nafar mugimendua anitza dela, baina Topaguneak oso argi duela ezarpenaren bidetik gaizki doala kontu hau. Eskubideak bermatzeak ez du esan nahi ezer inposatu behar denik.

5. BILERA: 2021/09/15 (Telematikoa)



Bilera gauzatu aurretik, honako gogoeta hau eta galdera hauek partekatu genituen taldekideekin, batzarra dinamikoagoa izateko helburuarekin, batetik, eta, bestetik, eztabaida bera ordena edo logika batez garatzeko asmoz.

Zer egin gizarte batetan, Nafarroan gertatzen den bezala kasu honetan, aurkakotasuna guztizkoa denean? Pentsa dezakegu bestea ez dela inoiz gurera etorriko, orduan nahiago dugu ezertan amore ez eman, batez ere gure ustea moralki bestearen gainetik dagoela uste dugunean. Baina gatazka gai baten inguruan sortzen denean eta bestea nireira erakartzeko gai ez naizenean, orduan bizkidetzaren beharraz hitz egiten dugu.

Bizkidetza balioesten duen gizarte batean, herritarrak, elkarren ondoan ez ezik, elkarrekin bizi dira. Gutxieneko kontsentsu zabalak lortzeko premia ageri da, baina, hartarako, herritarren, administrazioaren eta eragile politikoen arteko konfiantza eraiki beharra dago. Elkarrekiko mesfidantzaz blai dagoen gizarte batek nekez gara lezake harreman demokratikorik, edozein delarik gatazka iturria.

1.- Iruditzen zaizu nafarrok eroso adierazi dezakegula pentsatzen duguna euskarari buruz, immigrazioari buruz, nazio identitateari

buruz...., edozein gizarte demokratiko batean bezalaxe? Horrela ez balitz, non ikusten duzu zuk giro gaiztoaren jatorria?

2.- Esaten da beharrezkoa dela gutxieneko konfiantza bat gizarte batek ondo funtzionatu dezan. Nor da, zure ustez, mesfidati nafar gizartean? Non dago gakoa?

Taldearen iritzi nahiko orokortua da historia hurbilak (*frankismoaren itzalaz* hitz egiten da, adibidez) pisu handia daukala oraindik ere nafar gizartean. Bai eskuin indartsu bat dagoelako, maila politikoan eta sozialean (Opus Dei aipatzen da hemen) eta, baita, jende arruntaren iruditerian eta ohituretan arrastoa utzi duelako ere. Beste alde batetik, ETArek jarduna orain hamar urte amaitu arren, horren inguruko intolerantzia somatzen du beste kide batek. Agian horregatik *alde emozionalak*, planteatzen du kide batek, *alde arrazionalak* baino garrantzia handiagoa dauka eztabaida demokratikoa bultzatzeko orduan.

Gizarte demokratiko guztietan, argudiatzen da, egoten dira arazoak nork bere iritzia “eroso” adierazteko; hala ere, kide batek baino gehiagok aitortzen du are deserosoagoa dela gauza batzuei buruz eztabaidatzea lagunartean edo familian; hots, hurbileko jendearekin, gai batzuk oso mingarriak direlako.

Hitz joko bat eginez, kide batek dio “elkar-hizketa” baino “elkar-entzumena” behar dela nafar gizartean, ez baitakigu elkarri entzuten. Erosoagoa da bakarrizketak egitea hitzarmenak gauzatzea baino. Ildo beretik adierazten du beste batek euskara ez dakien bati oso zaila dela adieraztea zein neurritan dauden erasotutako euskaldunen eskubideak.

GU handi bat baino, BESTEAK (edo “gu” txiki asko) kontzeptua dago oso garatua Nafarroan, demokrazia ongi gauzatu gabeko gizartea dela iradokiz:

“Berdintasunaren printzipioa behar bezala ongi garatu beharra dago oraindik, hau da, ezberdina dena zure berdina dela eta bere ideiak zureak bezain baliagarriak direla.”

Hortaz, mesfidantza orokortuaz ere hitz egin daitekeela ematen du. Horrelaxe azaltzen du ideia hau kide batek:

“Onarpena etorri behar da benetako ariketa serio batetik. Eta gure euskal komunitatetik gure biktimismoari bere neurria jarri behar diogu, noski, hizkuntza eskubideak bermatuak izan behar dira, baina beste kontu batzuk kontutan hartu behar lirateke. Badirudi bakarrik daudela aukera A edo aukera B. Alde guztietatik gara mesfidati.”

Idea horren arrastoan adierazten du beste kide batek *“mesfidati direla elite politikoak eta hizkuntza eskubideak zapalduta ikusten dituztenak.”* Mutur biak, hortaz, nolabait esanda. Badago, hala ere, mesfidantza *“pribilegioak galtzeari”* lotzen dion kide bat. Asko falta dute nafar gobernariak aniztasuna benetan onartzeko, Australiak kultura maoriarekin egin duen bezala, adibidez.

Hurrengo galderaz gogoeta egitera pasatu dira kideak:

3.- Nola konpondu daiteke mesfidantza giroa? Baten batek egin beharko luke ahalegin berezirik? Nafar administrazioak, edozein delarik ere bere kutsu politikoa, herritarren gutxieneko konfiantza eduki beharko luke, ala konfiantza ideologia politikoaren arabera lortzen da?

Hasieran bertan agertzen da gai korapilatsu bat: norentzat da arazo euskal hizkuntza?

Desadostasun bat agertzen da lehen esandakoaz: erdaldun batzuk oso ongi ulertzen dute euskararen arazoa, diote batzuek. Benetako problema da erdaldun askorentzat euskara zerbait arrotza dela, ez dutela sentitzen haien ondare gisa; zona batzuetan hitz egiten da eta listo. Eta aurrerapauso bat ere ematen da: euskara nafar guztiona da eta administrazioa ere bai.

“Euskara ez da bakarrik zonalde batzuetako gauza, Nafarroa osokoa baizik eta horregatik nahiz eta zuk euskara ez hitz egin, zure arazoa ere bada. Nork egin beharko luke heldutasun ariketa hori? Guztiok egin beharko genuke. Administrazioarengan izan beharko genukeen konfiantzari buruz, denok izan beharko genuke konfiantza. Modu demokratiko batetan aukeratu dira? Ba, orduan, nire instituzioak ere badira.”

Nafarroa batu eta demokratiko baten bila bagoaz, argumentatzen du kide batek, integraziotik eta onarpenetik bakarrik uler daiteke; ez bakarrik tolerantziatik: herritar guztiak berdintasunetik tratatzea, horixe litzateke gakoa. Testuinguru honetan, euskara ez da euskaldunen arazoa bakarrik. Komunitate osoaren arazoa da. Onartu beharko genuke Nafarroa aberatsagoa dela euskararekin, denon ondarearekin. Administrazioak progresiboki jardun behar du, egia da, baina aitortzatik abiatuta. Baina horrekin batera,

“Gutxiengoak garenok estrategiak pentsatu behar ditugu beste horiek enpatikoagoak izateko, gehiengo soziala eraikiz gehiengo politikoan eragiteko. Adibidez, aliantzak eraikiz beste gizarte talde batzuekin.”

Illo horretatik joanda, hitzarmen bat beharko litzatekeela dio beste kide batek, “hezkontza hitzarmen” baten beharra aipatzen den bezalaxe. Eta berriro agertzen da ezinegona hezkuntza sistemaren jardunarekin: nafar ikasleen %60k ez du inolako harremanik euskararekin. Hori da arazo nagusia gaur egun. Alabaina, “Nafarroa batu” hori euskaldunen asmoetan baino ez ote dagoen zalantza agertzen da. “Espainiarzaletasunarekin” identifikatzen direnak eroso sentitzen dira.

6. BILERA: 2021/10/06 (Iruña)

Bilera honen (berez, talde honen eta proiektuaren beraren) helburua izan da Nafarroako bizikidetza indartzeko iradokizunak, proposamenak, neurriak... jasotzea. Eta horrekin batera, ahaztu gabe konfiantza giroa lantzea ere badela gogoetagaia proiektu honetan. Hori gogorarazi zaie kideei, arriskua egon zitekeelako euskararen inguruko neurriak proposatzeko bakar-bakarrik.

Hortaz, galdera zehatza hau izan da:

Zer egin beharko lukete eremu hauetako eragileek Nafarroako gizartearen bizikidetzaren izenean?

Eta ondoko arloak hautatu ditugu:

- Euskal Herriko markoa onartzen duten alderdi politikoak

- Espainiako markoa onartzen duten alderdi politikoak
- Euskalgintza
- Nafar Administrazioa
- Hedabideak

Eremu bakoitzari zuzendutako iradokizun bat pentsatzeko eskatu zaie. Horiek batu eta gero, eta dagokion zutabearen jarrita, erantzunek sortutako kideen arteko eztabaidaren puntu nagusiak batu ditugu, zeren, ikusiko denez, iradokizun batzuk elkarrekin talka egiten dute. Ez dago ahobatasunik iradokizunetan, baina, beste alde batetik, geroago ere ikusiko dugunez, baieztapen batzuk adostasun handiagoa lortzen dute besteek baino. Eta badaude ere iradokizun batzuk sarritan errepikatzen direnak baina oso gutxi -edo bat ere- azaltzen direnak. Adibidez, "autokritika" eskatzen zaie hainbat arlotako eragileei, baina ez dute zehazten zertan datzan autokritika hori. Ikus ditzagun denak, iradokizunak eta eztabaidak, arloz arlo:

1. EUSKAL HERRIKO MARKOA ONARTZEN DUTEN ALDERDI POLITIKOEI

- Autokritika egitea.
- Nazio sentimenduak norberarenak eta pribatuak direla onartzea. Eguneroko jardun politikotik ateratzea.
- Nazio identitate aniztasuna onartzea.
- Biktima guztien aitortza egitea, konplexurik gabe.
- Hizkuntza ituna; gizarte akordio zabal bat lortu behar da.
- Euskaldunen eskubideen defentsa irmoagoa. Euskara zama, zigorra, demeritua... da Nafarroan.
- Nafar administrazioa alde edukitzeko, gehiengo sozialak lortu behar dira. Euskara balizko euskal estatuarekin lotzen da eta hor jende baten atxikimendua galdu daiteke. Lehen askatasunarekin lotzen zen; zabalagoa zen atxikimendua. Buelta eman behar zaio horri beste jende baten atxikimendua lortzeko .

- Postura maximalistak saihestea, ez hainbeste eguneroko jardunean, baizik eta diskurtsoan. Alderdiek “zaindu” nahi dute euren bozka eta hortik datoz batzuetan krispazio guneak; nahiz eta gero politikak ez diren hain maximalistak.
- Bizikidetzaren izenean euskaldunen hizkuntza eskubideak ez alboratzea. Defentsa irmoagoa egitea.
- Euskara ezin da izan nazio identitatearen elementu nagusia. Euskara nafar guztiena ikusaraztea. Diskurtsoan aholkatu behar da euskara ikastea baina euskal herritarra izateko ez da izan behar euskalduna.
- Herritarren arteko desberdinkeria ekidin: justizia soziala; genero, adin, klase arrakalak ezabatzen saiatzea.

Iradokizunak irakurrita, gai bi agertzen dira kideen arteko eztabaida:

- Lehena euskal nazioaren irudikapenari dagokio. “Euskal nazioa euskaldun hutsez irudikatzen dugu?” galdetzen du kide batek. Desegokia eta bat ere errealista iruditzen zaio haren ustez euskal nazionalismoak darabilen nazio kontzeptu hori. Are gehiago, beste baten esanetan, euskal nazionalismoak ezin du jardun Espainiakoak eta Frantziakoak jardun duten bezalatsu. Bestela esanda, euskararekiko atxikimendua bilatu behar da, ezer inposatu gabe.
- Bigarren eztabaidagaia Euskal Herriko markoa onartzen duten alderdien jardun politikoari dagokio. Guztiz kontrako norabidean, gorago aipatutako ekarpenari dagokionez, kide batek azaltzen du bere ezinegonak alderdi abertzaleen lehentasuna ez delako euskara, hori eginez gero bozkek galduko ote lituzketen beldurrez ari dira eta.

2.- ESPAINIAKO MARKOA ONARTZEN DUTEN ALDERDI POLITIKOEI

- Autokritika egitea.
- Biktima guztien aitortza.
- Nazio sentimenduak onartzea, aniztasuna onartzea

- Nafarroa eraikitzeko den bezala onartzea eta bi hizkuntzak (gaztelania eta euskara) sustatzea. Berdintasunean.
- Euskara Nafarroako hizkuntza gisa onartzea.
- Interes politikoak ez nagusitzea; horiek direla medio besteen aurrerapausoak ez gutxiestea.
- Euskara despolitizatzea eta bide judizialek ateratzea.
- Ikuspegi ekolinguistikoari atxikitzea.
- Euskararen onarpenean atzera ez egitea (Tuterako udalaren adibidea ipintzen da: lehenago euskara meritutzat hartzen zen, orain ez.)
- Nafartasun integratzailea onartzea: kultura, identitate eta hizkuntza aniztasuna onartu, integrazioa bultzatuz. Horren izenean, sinbolikoki errespetuz tratatzea euskara.
- Euskara nafar identitatearen osagai modura ulertzea.

Kasu honetan, eztabaida luzeagoa da edo gauza gehiago dute esateko:

- Euskara nafar identitate gisa onartzea dela eta, planteatzen du kide batek osagai izateak ez duela zertan esan nafar guztiak euskaldun izan behar direnik. “Osasuna ere bada osagaia, eta badago jendea Osasuna gustatzen ez zaiona.” gehitzen du.
- Batek baino gehiagok adierazten du, modu desberdinetan bada ere, Espainia marko bezala onartzen duten alderdiek bat egiten dutela, teorian, euskara Nafarroako hizkuntza delako ideiarekin, hots, euskara nafar identitatearen zati dela; baina errealitatetan, ez dute onartzen. Edo bestelako ñabardura egiten dute: euskara nafarra da baina lurraldearen zati batean bakarrik. Euskara txoko batean irudikatzen dute.
- Neurri batean, frankismoaren ideien oinordeko dira alderdi hauek. Alderdiok uste dute euskararekin batera euskal nazionalismoa indartzen dela.

- Egoera honen aurrean, batek baino gehiagok adierazten du ezinbestekoa dela euskara aurkeztea osagai integraile eta kohesionatzaile gisa.
- Ildo beretik joanda, beharrezkoa litzateke hizkuntza itun bat gauzatzea
- Nolabaiteko nostalgia adierazten da, gorago aipatutako ildotik, euskararen egoera, aintzina, hobe omen zelako; edo alderdi hauek ez zirelako horren “euskarafobikoak”.

3.- EUSKALGINTZARI

- Autokritika egitea.
- Paternalismoa eta “kolonialismoa” baztertu eta Nafarroaren aniztasuna onartzea. Euskalgintzak ez du ulertzen Nafarroako aniztasuna; ez du lortzen jendea integratzea. (Euskara ikasteko testu liburuetan ez da agertzen Erribera...).
- Euskararekiko jarrera baikorra sustatzea, jendarte motibatzeke.
- Jarrera haserretuak baztertu. Gauza negatibo gehiago jartzen dira mahai gainean gauza positiboak baino.
- Malgutasunez lantzea jardunak, prozesuak, emaitzak...
- Gaztelan egiteari beldurra kentzea: ateak irekitzea.
- Mezuak eraikitzea euskaltzale ez direnentzat.
- Lurralde bakoitzaren abiadura desberdinak kontuan hartzea.
- Bi hizkuntzen ofizialtasuna eta herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuko dituen hizkuntza ituna defendatzea.
- Mobilizazio soziala sustatzea, azkenaldi honetan ez duelako egiten.

Ikusten denez, iradokizun guztiak ez doaz norabide berean. Batzuek jarrera haserretuak baretzea eta besteek mobilizazioak areagotzea eskatzen diote euskararen aldeko mugimenduari. Eztabaida ere apur bat nahasiagoa izan zen.

- Alde batetik, Administrazioari kritika egiteko baliatzen da: “Euskara ezagutzeko eskubidea onartuta dago, baina administrazioak %80ri EZ ezagutzeko eskubidea aitortzen dio.”
- Eta, aldiz, beste batzuek akordio edo itunaren ideia horretan sakontzen dute: “Euskararen ezagutzari lekua egin behar zaio itun horretan. Zientifikoki frogatuta dago zeintzuk diren minimoak hizkuntza bat biziberritzeko.”
- Eta, besteren batek, euskalgintzari leporatzen dio alderdi politikoen menpe ibiltzea, eta horiek abagunearen arabera dihardute, beti bozkak galtzeko beldurrez.

4.- NAFAR ADMINISTRAZIOARI

- Hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea.
- Gaztelania eta euskara, bi-biak, ofizialak izatea.
- Bizikidetzarekin lotutako hitzarmenak bultzatzea.
- Biktima guztiak onartzea.
- Ideologia dela eta, diskriminaziorik ez egitea.
- Herritarren parte hartzea sustatzea, gazteen aldetik, batez ere.
- Memoria historikoa berreskuratzea
- Nafarroako identitate aniztasuna onartzea.
- Hegoaldean euskara prestigiatzea, euskara Nafarroako identitatearen zati baita.
- Euskara ikastea doakoa izatea 16 urteetatik gora.
- Eskuzabala izatea legearen bideak erabiltzen Europako arauak erabiltzeko orduan.
- Hezkuntza sisteman, Nafarroako historia, kultura eta euskara irakastea.

Arlo honetan ere somatu ahal izan ziren desberdinasunak iradokizunetan, ondorengo eztabaidan ere islatu zirenak:

- Nafarroako errealitatea ondo ezagutu behar da. Euskararen alde esaten diren gauza batzuk kontraproduzenteak dira hegoaldean, adibidez.
- Gakoa hiltunen arteko bizikidetza da. Ondo bideratu behar dira desberdintasunak nahi dugun tokira heltzeko.
- Antzeko ildotik, "euskaltzaleok burua nekatu behar dugu" esaten du beste batek. "Komunitate hegemonikoak" [erdaldunak, ulertu behar da] ez du jan bestea. Komunitate biak elkarrekin bizi behar dira.
- Batzuk, baikortasunez azaltzen dute egoera txarra: Euskararen kontra daudenak (eta, nola edo hala, Administrazioa sartzen du multzo horretan) urduri daude, euskara eremuak irabazten dagoelako eta horrexegatik jartzen dira horren oldarkor.

5.- HEDABIDEEI

- Euskarazko edukiak modernizatzea.
- Mezu integratzaileak zabaltzea.
- Liskarrak saihestea.
- Arazorik ez sortzea.
- Identitate aniztasuna aberastasun modura aitortzea.
- Dekalogo bat praktika onak adieraziz.
- EITBk Nafarroako berriak eta edukiak ematea.
- Diskurtso maximalistari bizkarra eman eta ez ipini bozgorailurik bizikidetzaren kontra daudenei.
- Laguntza publikoak murriztu ez badituzte minimo batzuk betetzen.
- Objektibotasuna zaintzea.

Arlo honetan adostasun zabala egon zen. Ez zen sortu eztabaidarik.

Proposamenak eta iradokizunak eztabaidatu ondoren, taldekideei banatu zaie hamarna gometxa, agertu diren proposamenen artean banatzeko oniritzia emateko helburuz. Zenbat eta gometxa gehiago jaso iradokizun batek, are eta adostasun handiagoa duela adierazten da.

Nolabaiteko “bozkak” ikusita, halako hurrenkera egin ahal izan da gometxa gehien jasotakoekin:

1. **Euskalgintzari** eskatzen zaio mezuak eraikitzea euskaltzale ez direnentzat ere (7 gometxa)
2. **Espainiako markoa onartzen duten alderdi politikoei** eskatzen zaie Nafarroa den bezala onartzea eta gaztelania eta euskara era berdinean sustatzea (6 gometxa)

Bi horiek kenduta, nahiko sakabanatuta agertzen dira lehentasunak. Arloz arlo ikusita:

✓ **Nafar Administrazioari**

- Euskara eta gaztelania izatea hizkuntza ofizialak (3 gometxa)
- Nafartasun integratzaile baten aldeko ituna (2 gometxa)
- Euskararen inguruko iritziak hobetzeko kanpainak (2 gometxa)
- Euskara doakoa izatea 16 urtetik gorakoentzat (2 gometxa)
- Zonifikazioarekin amaitu (2 gometxa)
- Nafarroako hegoaldean euskara prestigioatu (2 gometxa)

✓ **Euskalgintzari**

- Nafarroako aniztasuna ulertzea eta onartzea “paternalismorik” eta “kolonialismorik” gabe (2 gometxa)
- Helburuei uko egin gabe aldekotsuna handitzeko estrategiak birpentsatzea (2 gometxa)
- Malgutasunez landu ekintzen diseinua, prozesuak eta emaitzak (2 gometxa)

- Abiadurak kontuan izan (2 gometxa)

- ✓ **Espainiako markoa onartzen duten alderdi politikoei**
 - Aniztasuna errespetatu (2 gometxa)
 - Biktima guztien aitortza (2 gometxa)
 - Ikuspegi ekolinguistikoa (2 gometxa)

- ✓ **Euskal Herriko markoa onartzen duten alderdi politikoei**
 - Herritarren arteko desberdinkeria saihetsi: justizia soziala (3 gometxa)
 - Bizikidetzaren izenean euskaldunen eskubideak ez alboratzea (2 gometxa)
 - Euskara eta euskal nazio identitatea bereiztea (2 gometxa)
 - Biktima guztien aitortza, konplexurik gabe (gometxa 1)
 - Nazio identitate aniztasuna onartu (gometxa 1)

- ✓ **Hedabideei**
 - Diskurtso maximalista eta bizikidetzaren kontra daudenei bozgorailurik ez ematea (2 gometxa)
 - Euskarazko edukiak normaltasunez ematea (2 gometxa)
 - Laguntza publikoak minimoetara lotu (2 gometxa)
 - Euskarazko edukiak modernizatu (gometxa 1)
 - Euskararekiko errespetua (gometxa 1)
 - Hizkuntza erasotzailea baztertu (gometxa 1)
 - Objektibotasuna zaindu (gometxa 1)

Kontu bi nabarmentzekoak:

Batetik, Ikusten denez, euskararen inguruan mutur bietan daudenei eskatutako “baretze” bat da adostasun handiena jaso duena.

Eta, bestetik, askoz planteamendu sakonagoak egiten dituzte taldekideek eztabaidan sartuta, baina gehiago kostatzen zaie, logikoa denez, iradokizun edo aholku zehazik adieraztea.

3.2. GURE DESADOSTASUNAK: EZBERDINEN ARTEKO KONFIANTZA LANTZEN NAFARROAN JARDUNALDIA (IRUÑA, 2021/06/16)



Gorago azaldu bezala, elkarrekin bizi ahal izateko baldintza nagusia elkarrenganako konfiantza da. Bizikidetzarekin gertatzen zen modu berean, ez badira onartzen joko demokratikoaren ondorioak, ez da posible konfiantzarik sortzea. Horixe da erronka nagusia: desberdin pentsatzen dutenen arteko konfiantzazko giroa ahalbidetzea. Eta horixe izan zen, hain zuzen ere, Iruñan, Civicana aretoan, egin zen jardunaldiaren helburu nagusia: konfiantzaz gogoeta egitea.

1. Zergatik heltzen da gizarte batean mesfidantza konfiantzari gailentzera? Non huts egiten da? Nork huts egiten du?
2. Noren arteko konfiantzaz hitz egitea da inportanteena? Non dago lehenik eta behin askatu beharreko korapiloa?
3. Zer esan instituzio politikoaren eta herritarren artekoaz? Instituzioek zilegitasun handiagoa irabazi behar dute herritarren begietara?

4. Eta herritarren euren arteko konfiantzaz? Beldurra eta gorrotoa areagotzen dituzten diskurtsoak oztopo dira?. Onargarriak dira demokrazia batean?
5. Azkenik, zer gertatzen da arlo politikoko eragileen arteko konfiantzarekin? Zenbateraino bereizi behar dira oposizio politiko demokratikoaren zilegitasuna eta gutxieneko kontsentsu demokratikoak?

Horretaz guztiaz hausnartzeko, mahai bi osatu ziren. Lehen, gogoeta teorikoan sakontzeko eta nazioartean egondako esperientzien berri emateko; eta bigarrena, Nafarroako hiru adituz osatua, bertatik bertara dagoen problematika aztertzeko.

3.2.1. Nazioarteko mahaia



Ezberdinen arteko konfiantza sortzen izeneko jardunaldi honetako lehenengo mahainguruan nazioarteari begiratu bat eman nahi izan zitzaion. Konfiantza bada bizikidetzaren baldintza, zein da konfiantzaren baldintza? Eztabaida demokratikoan sakontzea izan liteke? Nola lortzen da hori? Horretaz gogoeta egiteko eta esperientzia ezberdinak kontatzeko Jaume Lopez eta Gilen Garcia izan genituen gonbidatu modura.

Jaume López Pompeu Fabra Unibertsitateko Politika Zientzietako irakaslea da. Behin baino gehiagotan bisitatu du Euskal Herria, Kataluniako prozesuaz hitz egiteko, besteak beste. *La independencia de Cataluña explicada a mis amigos españoles* liburuaren egilea da.

Hizlari kataluniarrek aurreneko gogoeta teoriko batzuk aurkeztu zituen konfiantza, polarizazio eta aurkamendu kontzeptuen harira. Bost ñabardura garrantzitsu egin zituen, horrela:

1. Biolentzia fisikoaren deslegitimazio garaian bizi gara.
2. Teknologia berriek polarizazioa elikatzen dute eta demokraziarako erronka arriskutsu bihurtzen dira.
3. Gerra kulturalen unea bizi dugu, interes materialen ordeiz. Osagai materialek garrantzia galtzen dute eta negoziazioa zailago bihurtzen da, emozioek protagonismo handia hartu dutelako.
4. Gizarte kapitala: konfiantza eta kohesio soziala badaude, errazagoa izango da negoziazioei ekiteko.
5. *Nation building*: gure demokrazietan konfiantza eraikitzeke lantegia nazioak eragindakoa izan da, lurralde berean bizi direnen arteko arrakalak leuntzen dituelako. *Interes* pragmatikoen komunitatetik *identitate* komunitatera iragan dira demokrazia modernoak.

Nola eragin lezake honek guztiak Nafarroako gizartean? Erronka berriak planteatzen ditu “nation building” delakoak, identitate eta hizkuntza biren arteko talka aurkitzen dugulako, eta horrek erabat ikutzen du balizko konfiantza. Testuinguru honetan, polarizazioak (alegia, konfiantzarik eza) edo gizartea komunitate bitan banatua irudikatzea tresna baliagarria bihurtzen da estatu nagusiarentzat eta, aldiz, konfiantza lantzeak berebiziko garrantzia hartzen du estatu azpiko nazio identitatearentzat.

Konfiantza faltak identitate edo hizkuntza komunitateen artean herra eta gorrotoa eragin ditzake, nolabaiteko beldurrean oinarritzen delako: herritarrak

uste du besteak eraldatu diezaiokeela bizimodua. Eta konfiantza elkarren ezagutzan oinarritzen da, ondorioz, elkarren ulermena eta aitortza dakartza.

Gaur egungo gizarte demokratikoetan, emozioak arrazoiari gailendu zaizkio eta baita instituzioei ere. Konfiantzaz hitz egitea emozioei buruz hitz egitea da, beraz.

Hala ere, konfiantzaren eraikuntzarako eztabaida soziala garrantzizkoa da, baina ezberdinen arteko eztabaida bakarrik izan daiteke emankorra, zeren norbere aldekoekin eztabaidatzeak, sarritan, polarizazioa areagotzen du. Adostasun sozial eta politiko zabala behar da baldintza modura benetako deliberazioa gauzatu dadin, komunikazio enpatikoa landu eta identitate komunerako osasgaiak bilatu.

Jaume Lópezen ondoren, Nazioarteko mahaiko beste kidea **Gilen Garcia** izan zen. Politologoa eta Debako (Gipuzkoa) alkatea legealdi honetan. Bertatik bertara ezagutu ditu Ipar Irlandako bake prozesuaren gorabeherak, besteak beste, *Black Caben* edo Taxi Beltzen ibilaldiak izeneko ekimenean parte hartuz. Bere ekarpenaren izena *Bizikidetza: Konfiantzaren eskilaran eta mesfidantzaren txirristan* izan zen.

Ontzat emanez Jaume Lopezek aurkeztutako marko teorikoa, alde emozionala lantzeko asmoa agertu zuen, berak Ipar Irlandan bizitako adibide batzuen bitartez. Konfiantzaren lanketa errespetuan eta elkarren aitortzan oinarritzen den neurrian, baieztatu zuen konfiantza igo beharreko eskilara bat dela, poliki-poliki igoten dena eta mesfidantza, berriz, ez dela landu behar. Gertaera txikienak eragiten du berriro ere laprast egitea eta oso erraza da hortik igarotzea: nahikoa izaten da besteari buruz ezer jakin nahi ez izatea. Ipar Irlandara joz, gizarte argiro zatikatua aurkeztu zuen, komunitate bitan zatitua, ezaguna denez: errepublikano katolikoak eta unionista protestanteak. Komunitate bi horiek fisikoki ere zatituta daude, harresien bidez edo muga naturalen bidez. Eta komunitateak babes eta kontrola, bi-biak, ematen dizkie kideei. Preso errepublikano ohiek antolatutako tourren bidez, Belfasten eta, oro har, gatazka prozesuaren nondik norakoak azaltzen aritu zen. Haren esanetan, bizikidetzak aurkitzen duen oztoporik nagusietakoa iraganaren irakurketa ezberdina da; zehatzago esanda, gatazka armatuak eragindako biktimen

jarrerak. Eta hori presente dago oraindik ere hiriko hainbat lekutan, nahiz eta, maila politiko-instituzionalean, hitzarmen sendoak eta esanguratsuak sinatu izana.

3.2.2 Nafarroako mahaia



Nafarroako Unibertsitate Publikoko hiru irakaslek osatua egon zen; hirurak ere I-Communitas Taldeko partaideak.

1.- CARMEN INNERARITY, soziologoa. Honako galdera egin zitzaion:

Nafarroa anitza da, paisajea, hizkuntza, kultura, ... eta horrela baieztatu dute proiektuan hartu duten eragile guztiek. Zure ikerkuntza ibilbidean arreta jarri duzu migrazio mugimendu berriek eragindako kultura aniztasunean eta horrek eragin lezakeen bizikidetza arazoan. Bizikidetza desberdin bitaz hitz egin ahal dugu? Bietatik ikas daiteke zerbait? Edo paraleloki diharduten prozesu sozialei buruz hitz egiten ari gara: bata, nazio identitate talkatik datorrena eta bestea migrazioak eragindako kultura aniztasunean oinarritzen dena?

Innerarityk nabarmendu zuen, lehenik eta behin, Nafarroan dagoen aniztasuna identitate arloan, ideologikoan baino gehiago, behatoki ezberdinen datuak

aurkeztuz. Emozioen garrantzia berretsi zuen, mailakatze bat jarritz: ezagutzarik eza, beldurra, tolerantzia, eta, azkenik, identitate horien eta eskubideen berdintasunaren aitortza. Horixe izan beharko litzateke instituzioen jardunaren funtsa. Lan eremuak izan beharko lirateke gizarte kapitala zaintzea, Nafarroan handi samarra dena; eta, bestea, aurkamendu mailak lasaitzea emozioak tartean daudelarik.

2.- JORGE URDANOZ, Zuzenbide arlokoa. Hauxe galdera:

Zure ikertze eremua zuzenbidearen filosofia da. Nafarroan herritarren arteko eta herritarren eta instituzioen arteko edota ideologia desberdineko taldeen arteko konfiantza eragiten duten kontsentsuei buruz hitz egiten denean, dilema hau sortu ohi da: Non eragin behar da gehien, araudien aldaketan ala herritarren jarreretan? Edo bateragarriak dira?

Urdanozen esanetan, demokrazian erabiltzen den prozedura bat gehiengoaren boterea da eta batzuetan injustua izan daiteke. Hori dela eta, eskubideak aitortu behar dira, indibidualak ere, gehiengo/gutxiengo dikotomiaren gainetik. Bereizi beharko lirateke, horrela, hiru kontzeptu:

- *Tolerantziak* debekurik eza bakarrik adierazten du.
- *Errespetuak* adierazten du besteari zerbait baliotsua aitortzen diozula.
- *Eskubideak*, eremu moral eta juridikoan, derrigortasunak eragiten dituzte. Obligazio bat dator eskubide batekin batera. Eskubideak aitortzea, beraz, konplexua da.

Pasioaren mailak eragiten du non kokatzen den jarrera bat; nolabaiteko mailaketa eragiten du. Hemen sartzen dira gatazka asko. Euskara eskubide bat bada, baten batek obligazioa dauka eskubide hori gauzatu dadin.

Erabakitzeko prozedurak gehiengo/gutxiengoaren bidez ebazten dira eta horien bidez ere neurtzen da arazoaren ebazpena. Bigarren estrategia izan daiteke testuingurura egokitzea, adibidez, hizkuntza zonifikazioan. Eta hirugarrena, indibiduala da: norberak erabakitzen du zein erlijiori atxiki, adibidez.

Pasioa berezkoa zaio gizakiari, baina politikoki oso arriskutsua da. Euskara pertsona askorentzat ametsa da, pasioa da eta eskubideen arloari dagokion gaia da. Nafarroak gainditu behar du zonifikazioa, zentzunik gabe geratu baita, kudeaketa mailan askoz ere mekanismo malguagoak daudelako eta agertoki politikoa ere aldatu delako. Azkenik, bizikidetzaz hitz egin nahi badugu, beste gutxiengo kultural batzuk hartu behar dira kontuan, adibidez, arabieraz hitz egiten duten nafarrak.

3.- LOHITZUNE ZULOAGA, soziologoa. Galdera honi erantzun zion:

Zure gogoeta arloak feminismoa du abiapuntutzat. Mugimendu feministarentzat ez da kontu berria bizikidetzat eta kontsentsuak lantzeko beharrezana. Ez da ere berria instituzioekin landu beharreko harremanaz hausnarketa egitea eta horrek denak nola eragiten duen mugimenduaren eta, oro har, emakumeen konfiantzan. Zer ekar diezaioke mugimendu feministan egindako gogoetak Nafarroako bizikidetzat eta kontsentsu berriak lantzeko orduan? Esan daiteke gatazkaren eta kontsentsuaren ikuspegi feminista bat dagoela?

Zuloagak azaldu zuenez, pertsona guztiok ez dugu parte hartzeko forma berdina; eta ez guke beldurrik izan behar nahi dugun moduan parte hartzeko. Lidergo nahiak eta lehiakortasun guztiak alboratu beharko genituzke. Feminismoaren gogoetak erakusten digu posible dela beste harreman mota bat ezartzea instituzioekin, solasaldi horizontalagoa bideratuz. Konpartitzen ez bada ere, eragile eta talde desberdinok onartu behar dugu ez dagoela zertan egon beti galtzaile/irabazle dikotomiarik. Emakumeen esperientziari balioa eman beharko litzaioke, emakumeak beti aritu direlako bizikidetzat ereiten, egunerokotasunean harremanen zaintzaile izaten, sareak ehuntzen, konfiantza espazioak sortzen. Hori izan da gizartean egokitu zaien lekua, eman zaien espazio txikia, eta horretan trebatu dira emakumeak.

Gizarte oso anitza eta polarizatua da Nafarroa, eta interseksionalitatea kontuan hartuta, behar ezberdinak zaindu beharko lirateke, baita botere harremanak izaten dituzten ezaugarri eta ondorioak kontuan hartu ere. Egoera horizontal

batean ipini eta norbera bestea ulertzeko jarreran kokatu. Hori lortzeko, elkar-ulertze prozesu bat eraiki behar da, konfiantza sortzeko erabakiorra dena.

3.3. BANAKAKO ELKARRIZKETAK

Arestian esan bezala, hamalau kide edo gogaide politiko elkarrizketatu ditugu, nafar lurralde osoa eta aukera politiko guztiak (baita generoa ere) kontuan hartuta.

3.3.1 Elkarrizketatuen soslai

Elkarrizketatuei anonimotasuna bermatu zaie, batzuen kasuan hala eskatu digutelako. Hori dela eta, izenak eta ezagutzeko bidea eman ditzaketen ezaugarriak kendu ditugu: herri zehatzak, adina... Hauxe elkarrizketatuen soslai:

1. Tafallaldea. Gizona. 55 urte ingurukoa. EHBilduko kidea
2. Lizarraldea. Emakumea. 60 urte ingurukoa. Podemos-Ahal Duguren hurbilekoa. Berdintasun gaietan aditua.
3. Iruñerria. Gizona. 60 urte ingurukoa. Geroa Baiko kidea, kargu politikoduna.
4. Iruñerria. Gizona. 35 urte ingurukoa. Euskalgintzako mugimenduetako kidea. Bertan ardura izandakoa.
5. Erribera. Gizona. 40 urte ingurukoa. I-Eko kidea, kargu politikoduna.
6. Tafallaldea/ Iruñerria. Gizona. 40 urte ingurukoa. Euskaltzalea eta idazlea.
7. Erribera/ Iruñerria. Gizona. 40 urte ingurukoa. Sindikatu bateko kidea, bertan ardura dauka.

8. Iruñerria (Euskal Herritik kanpo sortua). Emakumea. 60 urte ingurukoa. I-Eko kidea, kargu politikoduna.
9. Tafallaldea. Emakumea. 50 urte ingurukoa. PSNko kidea, kargu politikoduna.
10. Iparraldeko mendialdea. Emakumea. 55 urte ingurukoa. UPNko kidea, bertan ardurak izandakoa.
11. Erribera. Gizona. 70 urte ingurukoa. Idazlea.
12. Erribera. Gizona. 45 urte ingurukoa. Navarra Sumako kidea, kargu politikoduna.
13. Erribera. Gizona. 45 urte ingurukoa. Navarra Sumako kidea, kargu politikoduna.
14. Erribera. Emakumea. 40 urte ingurukoa. PSNko kidea, kargu politikoduna.

3.3.2. Elkarriketetan jarraitutako gidoia

Elkarriketatuen gogoeta eragiteko egin ditugun galderen bilduma honako hau izan da:

Sarrera

- Zein izan da zure ibilbidea [dagokion taldean]. Nola hurbildu zinen talde honetara?
- Uste duzu elkarriketa honetan aipatuko ditugun gaien inguruan asko hitz egiten dela zure taldean? Zure ustez, gehiago ala gutxiago erabili beharko lirateke halako gaiak?

1) Euskararen balizko despolitizazioaz

- Zure ustez, **euskara politizatuta** dago Nafarroan?
 - Politizatuta egotea normala da? ona ala txarra da?
 - Euskara politizatuta dago, bere atzean bi nazio identitatearen ikuspegiak talka egiten dutelako?
- Nork hitz egin lezake euskarari buruz? **Nor dago legitimatuta** (alde edo kontra) **hitz egiteko**? Hezkuntzaz ari bagara, adibidez, gurasoek bakarrik?
- Zure ustez, **euskara alderdi politikoen diskurtsotik kanpo** geratu beharko litzateke?
 - Horrek esan nahiko luke alderdi politiko batek ezin izango lukeela esan ez dagoela ados neurriren batekin?
 - Ez da gertatzen batzuetan kontrakoa, alegia, euskaltzaleek, adibidez, alderdi politikoei eskatzen dietela zerbait esatea, alde edo kontra agertzea, administrazioan eragitea...?

- Despolitizazioa aipatzen denean, **zer bilatzen da**, zure ustez?
 - Areriotasuna edo **sumindura** baretzea bilatzen da agian?
 - Zure ustez, **zerk eragiten du sumindura** euskara dela eta?
- Zein izan liteke **neurri egokia** euskararen inguruan dagoen sumindura soziala baretzeko?
 - Eskatu behar zaie **euskal nazionalismoari eta espainiar nazionalismoari** euskara ez dezatela jarri diskurtso politikoaren erdigunean?
 - Euskararen **ofizialtasuna lurralde osoan** lortzeak lagunduko luke?
- Eta zein izan liteke neurri edo ekimen egokia nafarren arteko **konfiantza** sortzeko euskararen gaian? Gutxieneko bat?

2) Nafar administrazioaren zereginaz

- Nafar **administrazioak** (foru komunitatearena, udalarena...) **nafar guztien mesederako** lan egin behar du?
 - Aipatu dezakezu adibide bat?
 - **Neutrala** izan daiteke, ala ezin da inoiz neutrala izan?
 - Eta nola iruditzen zaizu jokatzeko duela nafar administrazioak?
- Neutraltasunaz at, iruditzen zaizu nafar administrazioak **demokratikoki** jokatzeko duela?
 - Nafar guztien eskubideak zaintzen saiatzen da, ala huts egiten du zeregin honetan?
- Administrazioak **kontsentsu** zabalak bilatu beharko lituzke gai nagusi eta sensibleetan, gobernu aldaketa dagoenean finkatuta gera daitezkeen ondorengo legealdietan?
 - Uste duzu halako gaietan (sinboloak, hizkuntza politika, gure gaiari dagokionez) **gutxienekoak adostu** beharko liratekeela, ala hauteskundeetan lortutako emaitzek legitimatu egiten dute gobernu bere programa osorik garatzera?
- Eta kontsentsuak lortze aldera, zein izan beharko litzateke **eragile sozial eta politikoen** jarrera?
 - Eragile hauek ere parte izan beharko lirateke halako kontsentsuetan, ala legitimoa da bakoitzak bere espektatiba eta eskakizueni eustea?
 - Haiek ere alaketak egin beharko lituzkete diskurtsoetan eta jardunetan?
 - Zerbaitetan **amore eman** beharko lukete? Zeinek eta zertan?

3) Gizartean konfiantza giroa sortzeaz

- Iruditzen zaizu **nafarroak eroso adierazi** dezakegula **pentsatzen duguna** euskarari buruz, immigrazioari buruz, nazio identitateari buruz..., edozein gizarte demokratiko batean bezalaxe?
 - Horrela ez balitz, non ikusten duzu zuk **giro gaiztoaren jatorria**?
- Esaten da beharrezkoa dela gutxieneko konfiantza bat gizarte batek ondo funtzionatu dezan. **Nor da**, zure ustez, **mesfidati** nafar gizartean?
 - Non dago gakoa?

- Noren artean gertatzen da konfiantza falta hori?
- Nola **konpondu** daiteke mesfidantza giroa?
 - Baten batek egin beharko luke ahalegin berezirik?
 - Nafar administrazioak, edozein delarik ere bere kutsu politikoa, herritarren gutxieneko konfiantza eduki beharko luke, ala konfiantza ideologia politikoaren arabera lortzen da?
- Baduzu itxaropenik **ondorengo belaunaldietan**, eta apurka-apurka bada ere, leunduz joango dela nafarren arteko mesfidantza giroa?

Une honetan, elkarrizketa hauen guztien edukiaren ustiaketa egiten hasi gara, baina edukiak 2022. urtean zehar burutu beharreko proiektua gauzatzeko baliatuko ditugu. Uste dugu material oso baliotsua izango dela.

4/ PROIEKTUAREN BERAREN DIBULGAZIOA

Esan gabe doa esku artean darabilgun proiektu honek garrantzia duela nafar gizartearen bizitza sozialari begira. Funtsean, nafar herritarren eta eragile sozio-politikoaren iritzia jaso ostean, administrazioari luzatutako iradokizunak egitea izan da azterketaren funtsa. Baina prozesu horrek izan lezakeen eragina askoz emankorragoa izango da zenbat eta ezagunagoa izan nafar herritarren aldetik. Horrexegatik, Eusko Ikaskuntzaren zereginetako bat izan da proiektuaren berri ematea.

Oihartzun berezia izan zuen Iruñan egindako *Gure desadostasunak: ezberdinen arteko konfiantza lantzen* jardunaldiak, handik ateratako ondorio batzuek eztabaida piztu baitzuen euskal hedabide batzuetan, gaiak duen erakargarritasunaren seinale. Ondoren **prentsa berri eta artikulu ezberdinen** estekak:

1. <https://www.noticiasdenavarra.com/actualidad/politica/2021/04/18/euskera-piedra-angular-navarra/1138352.html>
2. <https://www.noticiasdenavarra.com/actualidad/politica/2021/06/16/jornada-debate-organizada-eusko-ikaskuntza/1156132.html>
3. <https://www.noticiasdenavarra.com/opinion/tribunas/2021/06/29/convivencia-navarra-cuestion-confianza/1160086.html>
4. <https://www.berria.eus/paperekoa/1896/020/001/2021-07-24/euskara-eta-konfiantza-nafarroan.htm>
5. <https://www.noticiasdenavarra.com/opinion/tribunas/2021/07/08/hablemos-identidades-navarra/1162896.html>
6. <https://www.berria.eus/paperekoa/1896/020/001/2021-07-24/euskara-eta-konfiantza-nafarroan.htm>
7. <https://www.berria.eus/paperekoa/1888/021/001/2021-07-15/eusko-ikaskuntza-bizikidetza-ala-asimilazioa.htm>
8. <https://www.naiz.eus/es/iritzia/articulos/nafar-herritarrak-eta-euskara>
9. <https://zuzeu.eus/euskara/eusko-ikaskuntza-jardun-euskarafoboak-zuritzen-nafarroan/>

Horrez gain, **Nafarroako Parlamentuan** maiatzaren 19an goizez, hango indar politiko batzuek hala eskatuta, Julen Zabalo eta Amaia Nausiak proiektuaren emaitzak aurkeztu zituzten. Ana Urkiza, Eusko Ikaskuntzare lehendakaria, eta Mikel Aramburu, Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehendakari ordeak ere parte hartu zuten.



<https://www.noticiasdenavarra.com/actualidad/politica/2021/05/19/eusko-ikaskuntza-identifica-parlamento-navarra/1147568.html>

Azkenik, Nafarroako Euskaltzale Topaguneak urriaren 14ean antolatutako *Nafarroan euskararen aldeko jarrerak indartzeko aukerak* jardunaldietan proiektuaren arduradunak ponentzia bat aurkeztu zuen euskararen gaian proiektuak landutako arlo nagusiak azaltzeko: "Nafar herritarrak eta euskara:

<https://topagunea.eus/jarrerak-actitudes/>



 **euskaltzaleen
topagunea**

Landako Etorbidea 4, 48200 Durango (Bizkaia) · 946 215 780 ·     

MUGIMENDUA ▾ EGITASMOAK BERRIAK AGENDA MULTIMEDIA ▾ DENDA EU ▾

· ZER EMAN DU JARDUNALDIAK? HIZLARIEN IKUSPEGIAK ·

 Ana Olló

 Xabier Erize

 Amaia Nausia

 Pili Kaltzada

 Iñaki Soto

 Itziar Luri

5/ PROIEKTUAREN ONDORIO NAGUSIAK ETA IRADOKIZUNAK

Sarreran esan dugunez, 2020ko jarduerak zalantza batzuk utzi zizkigun, eta horiek aztertzen eta argitzen saiatu gara 2021eko proiektuan. Gure helburua nafar eragileei, administrazioa barne, iradokizunak bideratzea izan da. 2020tik bi gai nagusi genekartzan, konfiantzaren beharra eta euskararen kudeaketa. Lehen ildoan, nafar herritarren arteko bizikidetza lortzeko konfiantzak behar dituen baldintzak azertu ditugu; eta bigarrean, argi izanda euskararen kudeaketa dela nafar gizartean sarrien agertzen den gai gatazkatsuena, haren kudeaketaz -administrazioaren aldetik-, diskurtsoez -eragile sozial eta politikoen aldetik- eta jarrerez -herritarren aldetik- aholkuak adieraztea.

5.1. KONFIANTZA

Gatazka eta lehia egoeretan ezinbesteko tresna jotzen dugu konfiantza. Izan ere, gatazka konfiantza faltagatik sortzen da neurri batean; eta bestalde, nola egin aurre gatazka bati modu demokratikoan gutxieneko konfiantza harremanik ez bada eraiki? Gaiari tarte luzea eman diogu, eta ekaineko jardunaldian horren inguruko ariketa bi egin genituen. Alde batetik, kontzeptua argitze aldera egon zen gogoeta teorikoa eta, bestetik, Nafarroako gizartera joanda, askatu beharreko korapiloak azertu ziren. Zer irakaspen atera dugu?

Konfiantzaren lanketa teorikoan ekainean eginiko Jardunalditik bost ideia nabarmendu beharrekoak dira:

- Lehena, gatazkak askotan maila kulturalen eta sinbolikoan agertzen dira, eta ez horrenbeste interes materialean.
- Bigarrena, edozein negoziazio edo kontsentsu lortzeko, ezinbestekoa da gizarte kapital sendoa egotea. Berriro ere, konfiantza baldintza da gizarteak aurrera egin ahal izateko gai batzuen inguruan.

- Hirugarrena, gizarte demokratikoetan, konfiantza nazio loturaren bidez lantzen da neurri handi batean, eta horrela leundu egiten dira lurralde bereko herritarren artean egon daitezkeen desberdintasunak.
- Laugarrena, konfiantza lortze aldera, dikotomia zurrunetatik alde egin behar da eztabaida sozialean, eta elkarriketa horizontalak sustatu, bai herritarren artekoak eta baita instituzioen eta herritarren artekoak ere.
- Eta bosgarrena, ez da nahikoa arlo politiko-instituzionalean akordioetara heltzea gizartean ez bada lortzen iraganari buruzko kontakizunean gutxieneko adostasunik.

Nafarroara etorrita, ideia interesgarriak eta erabilgarriak iruditu zaizkigu, argi baitago *nazio ikuspegi bi (Nafarroaren iragana, orainaldia eta etorkizuna ikusteko molde bi)* daudela elkarren talkan. Pentsaera klasikoan, horrek bi nazioen banaketa, edo bata besteren menpe geratzea ekarri behar zuen. Badaude beste formula batzuk, ordea, eta konfiantza beti da giltzarria. Konfiantza elkarren ezagutza eta elkarren ulermena eta aitortza bideratzeko, argi izanda konfiantzaz hitz egitea emozioei buruz ere hitz egitea dela. Hau da, esku artean darabiltzagun gaietan alde emozionalak berebiziko garrantzia du, eta ez hainbeste eztabaida arrazionalak. Emozioen garrantziak azaltzen digu konfiantzaren hauskortasuna: ez da egun batetik bestera sortzen, eta ñabardura txiki batengatik hondatu daiteke. Luzaro eta etengabe landu beharrekoa da, hortaz.

Eta ez ote genuke antzeko zerbait esan beharko euskararen inguruko gatazkaz? Hemen ere lehian dauden aldeek eztabaida arrazional gisa aurkeztu nahi dute, baina ez genuke pentsatu beharko, neurri handi batean, kontu emozional bati buruz ari garela, pasioz eztabaidatzen dena, ziurrenik nazio identitate lehia ezkututzen duelako? Garrantzia eman nahi diogu horri, eta aurrerapausoa izan litekeela uste dugu: eztabaida arrazional hutsak arrakasta txikia izango du euskararen gaia ebazteko orduan, berarekin batera herritarren emozioak, sentimenduak, beldurrak eta jarrerak ez badira lantzen, eta lanketa horretarako, gutxieneko konfiantza giroa ez bada sortzen. Tentu handiz eginda, hala ere, emozioak beharrezkoak bezain arriskutsuak izan litezke eta, Iruñako jardunaldian entzun ahal izan genuen bezalaxe. Oreka bilatu beharra dago,

ezinbestean, demokraziari dagokion arrazionaltasunaren eta gizartean nagusitzen diren emozio eta sentimendu multzoaren artean.

Konfiantza eta euskararen gainean apur bat zehatzago oraindik hitz egin digute Aholku Batzordeko kideek. Honako gogoetak nabarmendu litezke haien artean egondako eztabaidetatik.

- Alderdi politikoei heldutasun falta egozten zaie, ez direlako gai onartzeko eta herritarrei helarazteko nafar gizartearen aniztasuna, batez ere, hizkuntzari dagokiona. Ez dute giro egokirik lantzen konfiantza harremanik sortzeko.
- Bizikidetzaren pedagogia egin beharra aldarrikatzen dute.
- Eztabaida sozialean formak gordetzea eta hizkera belikoa baztertzea aipatzen dira, besteak beste, konfiantza lantzen hasteko.
- Nafar guztiak bilduko lituzkeen GU handi baten beharrezana somatzen da, mesfidantza orokortua baita.
- “Elkar-hizketa” baino, “elkar-entzumena” bultzatu behar da.

Zaila da, dena dela, bizikidetzaz eta euskara gai independente gisa tratatzea, haien ustez konfiantza faltaren azpian euskararen inguruko jarrera baitago. Gatazka eta euskara ez dute lotu nahi, kontziente direlako euskara beti gatazkari lotua agertzea haren kalterako dela, baina gatazkaz, bizikidetzaz eta konfiantzaz hitz egiten hasita, euskara da behin eta berriz agertzen den gai nagusia. Ikus dezagun zer esaten duten horretaz.

5.2. EUSKARA

Gai hau gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari da urtetik urtera gure proiektuan. 2019an nafar herritarren artean euskararen inguruan jarrera oso desberdinak zeudela baietsi genuen, oso polarizatuak. 2020an, lau jarrera nagusi identifikatu genituen, euskara eta gaztelaniaren arteko bizikidetzaz hizpide hartuta. Aurten gai horretan aritu den Aholku Batzorde bat bildu dugu,

euskararen inguruan eraiki den problematika konplexua hobeto ulertzeko asmoz. Sei bilera luze eta mamitsu landu dugu talde honekin, eta informazio joria bildu ahal izan dugu, azalduta geratu denez. Horrek denak gure aztergaia hobeto kokatzen lagundu digu. Hainbat ondorio eta zalantza berri atera zaigu 2021eko ariketatik.

Taldeak aholkuak eta iradokizunak plazaratu ditu oso sektore desberdinentzat: Euskal Herriko markoa onartzen dutenentzat, Espainiako markoa onartzen dutenentzat, euskararen aldeko lana egiten dutenentzat (euskalgintza), Administrazioarentzat, eta hedabideentzat. Denentzat dago zer esan eta zer aholkatu. Hasteko, horrek bakarrik ideia bat sortzen digu: aholkuak hain sektore desberdinei eman ahal bazaizkie, gai konplexu baten aurrean gaudela esan nahi du. Izan ere, jarrerak oso desberdinak dira sektore bakoitzaren barruan ere.

Azpirarratzekoa da, gure ustez, eta gaia zer katramilatuta dagoen erakusten digu, iradokizunak eta aholkuak egiteko orduan, hartzaile nagusiak ez direla Espainiako eta Euskal Herriko markoak onartzen dituzten alderdiak, pentsa litekeenez, euskara politizatuta dagoela oso argudio zabaldua da eta. Gure talde honetan landutakotik, aldiz, ematen du muturrak Espainiako markoa onartzen duten alderdi politikoek, batetik, eta Euskararen aldeko Mugimenduak (Euskalgintza), bestetik, osatzen dituztela.

Gaia nahasita dagoela esan dugu, izan ere, Euskalgintza euskal nazionalismoarekin identifikatzen dela ematen baitu. Neurri on batean hala dela esan liteke, baina kontuan hartu beharko litzateke euskalgintzaren barruan azken denboran gutxienez bi ildo ageri direla. Batzuen diskurtsoaren gakoa euskal hitzunen eskubideen defentsa da eta nafar lurralde osoa hartzen dute aldarri modura, nafar administrazioaren jokabide bidegabea salatuz mobilizazioaren bidez. Bigarren estrategiaren gakoa, ordea, progresiboki euskararen aurreko jarrera aldatzeko beharrea datza eta, beraz, fokua erdaldunengana bideratzen dute, euskara erakargarri izan dakien. Zabalpena da hemen asmo nagusia. Bietatik, lehena ezagunagoa izan da orain arte gizartean, eta horrek eragin du, sarritan, euskal nazionalismoaren jarrerarekin parekatzea, baina berez ez dago hori baieztatzerik.

Aholkuetatik at, taldearen eztabaidek gogoeta interesgarriak plazaratzeko aukera utzi digute. Hona batzuk:

- Euskal Herriko markoa onartzen duten eragileen artean, zalantza dago euskarak euskal nazioan bete behar duen paperaz. Teorian paper zentrala dagokio, baina, ikusi dugunez, estrategia desberdinak azaltzen dira helburu hori lortzeko orduan.
- Espainiako markoa onartzen duten eragileen artean, zalantza dago zergatik agertzen den euskararekiko axolagabekeria, eta baita arbuioa ere. Euskara nafar ondarea izanik, ez da erraz ulertzen berarekiko atxikimendu falta, lehenago gertatzen ez zena. Interesgarria da kexa hau eta agian interesgarria litzateke aurreko puntuan aipatu dugun abertzaleen jarrerarekin erkatzea eta batera ulertzea. Izan ere, ematen du abertzaleen arrakasta politikoak Espainiako markoa onartzen dutenen uzurtzea dakarrela euskarari dagokionez, euskara eta euskal nazionalismoa batera ulertzen dutelako (euskal nazionalismoak berak bultzatuta, bestalde).
- Konparazioa ez da hor amaitzen. Bi kasuotan, alderdi politikoen kontrako kritika zabaltzen da, alderdi interesak lehenesten dituztelako. Alderdi interesak zaintzea legitimoa izateaz gain, kritika alde guztietatik egiteak gaiaren konplexutasuna erakusten digu berriro. Euskaigintza alderdien logikatik libre dago, baina kritika egiten zaio alderdi abertzaleen menpe dagoelako eta ez duelako bere lana modu autonomoan egiten. Beste batzuek, aldiz, euskaldunez eta euskaldunen eskubideez bakarrik arduratzea leporatzen diote euskaigintzari: zer proposatzen dio, berriz, gehiengo erdaldunari? Euskara hain funtsezkoa bada, nola erakarri nafar herritar guztiak euskarara?
- Euskararen aldeko eragileei, oro har, egiten zaizkien iradokizunak deigarriak ere badira. Batzuek “aniztasuna errespetatzen ez dutenei ez zaiela errespeturik zor” esaten duten arren, sarritan agertzen den zalantza da zein neurritan ez ote duen euskararen aldeko mugimenduak berak elikatzen jarrerak gotortzea. Nafarroak “bi berezko hizkuntza” dituela onartzea aholkatzen zaie. Ildo horretatik, euskaigintzari

iradokitzen zaio “diskurtso irrealistik” ez egitea: adibidez, D eredu lurren osora zabaltzeko asmoz hitz egitea. Horren harira, hizkuntza eskubideei buruz “hil ala biziko arazo” gisa ez aurkeztea edo “hizkera belikoa” alboratzea, gorago genioen bezala. Bestela esanda, egoera “baretzen” laguntzea aholkatzen da, euskararen mesederako, beti ere.

- Nafar administrazioak ez du zinez tratatzen euskara bertako hizkuntza gisa, nafar hizkuntza gisa, alegia. Nafar Administrazioari egiten zaion iradokizuna (emozioz beteriko garraxi mindua askotan) Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioari uko egitea da. Hor kokatzen dute euskararen zabalpenerako oztopo nagusia, lurraldeka sailkatze hutsak eragin egiten baitu herritarrek euskararekin edukiko duten harremana; hurbilagoztat edo urrunagoztat ikustea, alegia. Urrunketa horrek indargabetu egiten ditu batzuetan Administrazioak har ditzakeen neurri positiboak (adibidez, gaur egun posible da lurralde osoan euskara edo euskarazko ereduak ezartzea eskoletan), eta ia ezerezean geratzen dira. Mesfidantza eta euskararekiko arrotasuna gailentzen dira.
- Hedabideei egindako iradokizunak argiak eta sinpleak dira: euskara nafar hizkuntza den neurrian, toki egokia egin diezaiotela: zaindu dezatela euskara eta areagotu ditzatela euskarazko edukiak.

6/ AZKEN GOGOETA (2022. URTERA BEGIRA)

Zer ikasi dugu 2021eko proiektuan?

Bizikidetza landu ahal izateko, nazio identitateen artean dagoen lehia ulertu behar da, eta lehia horretan euskara oso presente dago. Euskara da iceberg moduko batean ikus daitekeen zatia, eta horren inguruan sortzen da *zalaparta* sozial handiena. Eztabaida soziala pizten da euskararen inguruan, eta horrexegatik, nafar herritar gehienek badute iritzi bat eginda: kontra, alde edo ez-axola. Horietatik, 2021ean euskararen alde daudenen kezka eta jarrerak ulertu nahi izan ditugu.

Euskararen gaia hain da sentikorra, ezen oso zail bihurtzen baita eztabaida arrazionalik bultzatzea. Hala izanda ere, gaur egun bi joera, baturik batzuetan, nabarmentzen dira.

- Intentsitate desberdinarekin, ideologizatuago edo ez, nafar euskal hiztun askok euskararentzako irtenbide egokiagoak eskatzen dituzte, beste hizkuntza politika bat. Nafar administrazioak ez ditu betetzen haien espektatibak, eta bazter utzita sentitzen dira.
- Aurrekoarekin batera, euskalgintzaren sektore zabal bat nekatuta dago euskara etengabeko gatazkari lotuta ikusteaz, eta arrazionalki begiratuta, ez du uste orain arteko jarrerak etekinik sortu duenik. Egoera baretzea nahiko lukete, eta diskurtso berriak landu erdaldunen mesfidantzari aurre egiteko eta euskarara erakartzeko. Fokua erdaldunengana bideratu nahi omen dute
- Euskararen gaia sentikorra da azpian nazio identitateen arteko talka somatzen delako, nahiz eta oso gutxitan aitortzen den hori. Indar desberdinarekin, baina oinarri sendoa erakusten dute biek. Horregatik, agian, konturatzen, eta aitortzen, hasita daude hainbat eragile gaur egun ezina dela ez Nafarroa “guztiz euskalduna” irudikatzea, ezta Nafarroa “guztiz erdalduna” ere. Asmo baztertzailleak eta homogeneizatzailleak, bizikidetzarako kaltegarriak ez ezik, alferrikakoak omen dira gaur gaurkoz.

Zer geratu zaigu zalantza modura?

Euskararen gaineko balizko politizazioa edo despolitizazioa behin eta berriro irteten den gaia da. Hori horrela izanda, posible da euskara “despolitizatzea” nafar herritar batzuek eskatzen duten moduan? Lorgarri ikusten da “hizkuntza hitzarmen” moduko bat?

Iruditzen zaigu eztabaida ez dela termino argietan azaltzen, eta modu desberdinean ulertzen dutela batzuek eta besteek ustezko politizazioa. Agian kontua ez da euskara politizatzea edo despolitizatzea. Nafar gizarteak duen erronka nagusietako bat da onartzea nazio identitate bi elkarrekin bizi behar direla eta bakoitzaren asmoak eta helburuak demokratikoki kudeatzen ikasi behar dutela.

Nori dagokio urrats ausartak ematea konfiantza giroa sendotu dadin gizartean? Eta nor dago prest hori egiteko? Sektore batzuetan somatzen dira nolabaiteko mugimenduak: zenbaterainoko eragina izango dute agertoki berri bat eraikitzen?

Zer landu nahi dugu 2022ko proiektuan?

Gorago aipatu dugun iceberg horren punta zertxobait alboratuta, sakoneko arazora joan nahi dugu: nolako pausoak eman beharko lituzkete eragile sozial eta politikoei nazio identitate desberdinak dituzten nafar herritarren artean gutxieneko konfiantza giroa egon dadin, era horretara arazoak demokratikoki eztabaidatzeko eta administrazioak kudeatu ahal izateko?

Hori gerta dadin, lehenik eta behin, jakin beharko genuke zernolako mesfidantzak edo beldurrak dauden nafar herritar erdaldunen artean euskara hizpide denean. Material oso baliotsua deritzogu Xabier Erizek Nafarroako Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako jardunaldian aurkeztu zuenari: Erize, X. (2021, urriaren 16a) *Gaztelaniaz bizi diren nafarren motiboak euskararen sustapenean txertatzea: ikerketa esploratorio bat [ikerketaren aurkezpena]*.

Bigarrenik, espektro politiko zabaleko eragileekin 2021ean egindako sakoneko elkarrizketek gako asko emango dizkigute identitate aniztasun horren kudeaketari begira. Hemen ikusi ahal izango dugu, neurri batean behintzat, zein punturaino dauden prest indar politikoak eta sozialak aurrerapasoak emateko bizikidetza eta konfiantza sustatzearen alde, euren proiektu politikoak kaltetu gabe, beti ere.

Eta, hirugarrenik, gure asmoa da nafar lurralde osoko gazteekin egindako eztabaida taldeak antolatzea. Zergatik? Gure lan hipotesia da, 2020ko proiektuaren ondorioetan ere aipatu genuena, gazte belaunaldiak ez duela bizi intentsitate berarekin etengabe aipatzen ari garen giro gatazkatsua. Eta hori arrazoi bigatik:

- Gazte askok azken urteetan euskara ikasteko aukera izan dute. Haienzat ezin da izan euskara hizkuntza arrotz bat. Era naturalagoan ikusi behar dute.
- Ezagun da, eta Nafarroa ez da izango salbuespena, nazio identitateak, oro har, indarra galtzen ari direla, eta edozein modutan, beste modu batera adierazten direla gaur egun. Gazteak askoz irekiago daude beste identitate mota batzuekin atxikimendua adieraztera, adibidez, generoarekin harremanetan daudenak.

Ondorioa, beraz, gatazkaren “baretzea” izan beharko litzateke. Baina gure hipotesi hori ordezkari politikoek esandakoarekin ere kontrastatu beharko da. Gerta liteke, hala, gizarte zibilean konfiantza handitzea eta mugimendu hori ez egotea arlo politikoan oso ondo islatuta. Ikusteko dago.



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez



**Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua**

BULEGO NAGUSIAK

Miramar Jauregia. Miraconcha, 48
20007 - DONOSTIA
T. 943 310 855 | Fax 943 213 956
E: ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus

ARABA

Pedro Asua 2 - 2 / 63 bulegoa
01008 - GASTEIZ
T. 945 231 552
E: gasteiz@eusko-ikaskuntza.eus

BIZKAIA

Uribitarte ibilaldia 10. Behea
48001 - BILBO
T. 944 425 287
E: bilbo@eusko-ikaskuntza.eus

IPAR EUSKAL HERRIA

51, quai Jauréguiberry
64100 - BAIONA
T. 559 598 290 | F. 559 461 844
E: baiona@eusko-ikaskuntza.org

NAFARROA

Gaztelu plaza, 43 bis, 4. D
31001 - IRUÑEA
T. 948-222105
E: iruna@eusko-ikaskuntza.eus



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez